

# JAKINGARRIAK

MONDRAGON UNIBERTSITATEA. HUMANTATEAK ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA. ESKORIATZA



Teknologia berriak,  
informatzeko eta  
komunikatzeko?

40-41. zenbakia

1999ko abendua

# JAKINGARRIAK

“JAKINGARRIAK” Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean kokatua dagoen Dokumentazio Zentruko informazio-tresna da.

Dokumentazio Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako irizpide hauen arabera dira:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak
- Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen ditzuten baliabideak..

Dokumentazio Zentruak, irakasleen prestakuntzarako hiru baliabidegi eskaintzen ditu:

- Haur hezkuntza (0-7 urte)
- Hizkuntzen didaktika
- Haur liburua eta Eskolako Biblioteka

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Kontsulta, gure Zentrua bisitatuz.
- Fotokopiak: artikulua, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.

**Argitaratzailea:** Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.  
**Laguntzailea:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.  
**Idazkaria:** Mari Karmen Apraiz  
**Erredakzioa:** Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.  
Dorleta auzoa z/g  
20540 Eskoriatza  
Tfnoa: 943-714157  
Faxa: 943-714032  
E.mail: [liburutegia@huhezi.edu](mailto:liburutegia@huhezi.edu)  
**Zuzendartiza:** Nerea Alzola, Mariam Bilbatua  
**Azala:** Beatriz Arregi  
**L.G.:** SS-981/92

# AURKIBIDEA

## Berri bibliografikoak

- ☉ Liburu berrien albistekak ..... 4. orr.
- ☉ Artikulu aipagarriak ..... 5. orr.

## Gai monografikoa:

### **Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?**

- SARRERA..... 6. orr.
- ☉ Baliabideak..... 8. orr.
- ☉ Mikel Usabiaga: Zergatik informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak? 10. orr.
- ☉ Aquilina Fueyo: Globalizazioaren diskurtsoa: Baliabide neoteknologikoen sakralizazioa hezkuntzan..... 14. orr.
- ☉ Victor Manuel Marí Sáez: Lehoi erregearen irakurketa bat. Pentsamendu bakarraren aroan ..... 18. orr.
- ☉ Len Masterman: Publizitatearen irakaskuntza..... 24. orr.
- ☉ Mikel Usabiaga: Aita! Ama! Ikus dezaket telebista?..... 28. orr.
- ☉ Angelo Cacciola: Ipuintzen ..... 36. orr.
- ☉ Rafa Cenea: Ikasformatika proiektua ..... 40. orr.
- ☉ Josu Sierra: hizkuntzak ikasteko benetako esperientziak “chat” edo bideokonferentziaren bidez..... 42. orr.

# Berri bibliografikoak

## □ Liburu berrien albisteak



**LÓPEZ SÁNCHEZ, F. (1990):**  
***Educación Sexual.***  
**Madrid: Universidad de**  
**Educación a Distancia.**  
**Universidad Empresa**

Liburu hau UNED-ek eta Universidad Enpresa Fundazioak 1990. urtean, Giza Sexualitateari buruz antolaturiko Master baten bilduma dugu.

Izan ere, Félix López, alde batetik Masterrarekin eta ondoren liburuarekin, Sexu-Heziketan zegoen hutsunea betetzera datorkigu.

Argitalpen hau hamar unitatez eta gehigarri batez osaturik dago. Lehen hiru kapituluetan eta sarrera gisa, sexu-heziketa zertan datzan azaltzen dizkigu, eta horrez gain ikastetxean ikasgai hau antolatzeko aukerak eskaintzen zaizkigu. Hurrengo lau unitateetan, besteak beste, sexu-heziketa planteatzean izendatu daitezkeen helburu, eduki eta metodologia orokorrak proposatu ezezik, ebaluaketari ere tarte eskaintzen zaio nahitaez ahaztu ezin dugun gurasoen rola ere ukituz.

Zortzigarren kapitulan, laburki, hezkuntza etapa bakoitzean sar genitzakeen hel-

buru eta edukiak azaltzen dira. Atal hau, hurrengoarekin batera, non hezkuntza sexuarean aplikatzeko teknika ezberdinen bilduma eskaintzen zaigun, ezinbesteko tresna bihurtuko dira, gure ustez, arlo hau gelan lantzeko orduan.

Horrez gain, atek irekita uzten ditu irakaslearen formakuntzarako, nahi izanez gero, hezkuntza formalgotik hasi eta agerkari puntaletaraino; hain zuzen ere, idatzizko eta ikusentzunezko baliabide berriez osatuz.

Bukatzeko, ikastetxe canariar batean sexu-heziketaren inguruan gaurkoturiko unitate didaktiko baten deskribapena luzatzen zaigu.

Ziur gaude esperientzia aintzindari honek, gaur egun hedatzean dauden beste esperientzia batzuetan lagunduko dizutela. Oraindik ere, gure hezkuntza programetan "hutsunetzat" eta aldi berean, "beharrezkotzat" jotzen den arloa txertatzen laguntzeko.



**KAPLUN, M. (1998):**  
***Una pedagogía de la comunicación.***  
**Madrid: De La Torre.**

Informaziorako eta komunikaziorako Teknologia Berrien munduan lana egiten duen edozeinek irakurri beharreko liburua da. Berez, ez dago zuzendua Teknologia Berrietara, baina bai gure mundu honetan nola komunikatzen garen aztertzeraz. Bereziki irakasleei, Irakasletzako ikasleei, Informazio Zientzietako ikasle zein profesionalei, eta bere eguneroko lanean komunikatzea ezinbestekoa duen edozeini zuzendua.

Oso atsegina, irakurterraza eta zeharo praktikoa da. Komunikazioaren inguruko hainbat teknika ikasi ez ezik, komunikazio ona zer den eta nola lortu daitekeen ere ikas dezakegu. Komunikazio prozesu irekia eta eraginkorra proposatzen zaigu, igorleak eta hartzaileak maila bera izan dezaten eta parte har dezaten. Komunikatzailea ez dadila bakarrik informazio igorlea izan, hartzaileak mezuarekin bat egin dezala, eta bien arteko trukaketa eraginkorra eta etengabeko komunikazio prozesua sortu daitezela.

Orain dela gutxi hil da Mario Kaplun hegoamerikarra, eta bere lana zehazteko hitz hau erabiltzen zuen: "educador". Hainbat eta hainbat tailer antolatu zituen Hegoamerikan zehar, maila guztietako pertsonekin eta profesionalekin, beti helburu bakarra aurrean: besteengana hurbiltzeko bide eraginkorragoa eta komunikazio hobea lortzea. Pedagogia hau hainbat urtetako lanaren ondoren sortua da, eta ondorioz, ez da liburu teoriko hutsa, adibide eta ekintza praktikoa ugariz hornitua baitago.



# Artikulu aipagarriak

**ZIARSOLO, A.**

**“Haur Hezkuntza eta espezialistak”**

**Hik Hasi 40, 1999ko uztaila, 29-30 orr.**

Haur Eskolan, espezialistak direla eta, hezkuntza integrala eskaintzen ari gara?, galdetzen du autoreak.

Oso artikulu interesgarria, kritikoa eta hausnartzera bultzatzen gaituen.

**BATZUK: “Familia, noves configuracions”**

**Infància 109, juliol-agost 1999**

Artikulu hau, “Xarxa d’iniciatives d’Atenció a la Infancia”ren mintegi batek argitaraturiko testuaren zati bat besterik ez da, baina zati interesgarria.

Bertan aztertzen da familiak erakunde moduan izan dituen aldaketek zelako eragina duten eskolan, hezkuntzan eta haurtzaroaren ikuspegi.

Testu baliagarria hezitzaileentzat.

**ENGUITA, M.**

**“Las condiciones de la igualdad de oportunidades.”**

**Cuadernos de Pedagogía 282, julio-agosto 1999, p.19-24**

Mahai gainera ekartzea konpondu gabeko auzi hau eta hortaz berriro irakurtzea oso interesgarritzat jotzen dugu.

Soziologiako irakasle honek galdera eta elementu sakonak planteatzen dizkigu artikulu honetan.

**VARIOS**

**“Infantil y Primaria: ¿Dos mundos independientes?”**

**Cuadernos de Pedagogía 282, julio-agosto 1999, p. 40-44**

Artikulu honek Antzuolako Herri eskolara hurbiltzen gaitu non 2-7 urte bitarteko hezkuntza-etapa eskaintzen duten. Bertan, denontzat elkar-gune estimulagarria eta hezitzailea sortzea helburutzat dute eskolako profesionalak.

Oso esperientzia deigarria eta bizia.

**BOLIVAR, A.**

**“La educación no es un mercado. Crítica de la gestión de calidad total”**

**Aula 83/84 julio-agosto 1999,**

Kalitate osoaren kudeaketaren (“gestión de calidad total”) inguruan ondo dokumentatutako artikulua da honakoa. Gure eskoletan, zein kalitate mota nahi dugu? Zein da hezkuntzaren indarra neoliberalismoaren aurrean? Honen menpe gelditzen ari da hezkuntza?.

Horrelako galderak eta hausnartze-ko bideak eskaintzen dizkigu autoreak lan kritikoa honetan.


**JENSEN, C.**

**“Espai i equipment pensant en els infants”**

**Infància 109, juliol-agost 1999, 5-12 orr.**

Espazioa inoiz ez da neutroa. Baina egunerokotasunaren poderioz galdu ditzakegu koloreak, formak eta espazioaren antolaketak transmititzen dizkigun sentsazioak.

Egileak giltza batzuk eskaintzen dizkigu espazioari begirada kritikoz so egiteko.



# Gai monografikoa

## Teknologia berriak eta komunikatek

# T

eknologia Berrien inguruko ale hau prestatzen hasi ginenean, galdera hauek egin genizkion geure buruari:

- Informazioaren gizartean bizi gara?
- Informazioa ala komunikazioa?
- Bi gizakiren arteko komunikazio zuzenean tartekatzen dira Teknologia Berriak?
- Benetan, nolako informazio eta komunikazio beharrak daude gure gizartean?
- Teknologia Berriak informatzeko eta komunikatzeko ezinbesteko bitartekariak bihurtu dira?
- Zenbat informazio eta komunikazio oinarritzen dira “betiko teknologi idatzietan” eta zenbat “multimedia teknologia berrietan”?
- Idatzian alfabetatuak eta ikus-entzunezkoetan analfabetoak?
- Eskola munduak badu zer esanik honetan guztian?
- Eskola mundua bere bidea jorratzen ari da, ala beste batzuk bultzatuta doa?
- Zenbat denbora daramagu horretaz hitz egiten?
- Zenbat denbora daramagu horretaz zerbait egiten?

Agian galdera gehiegi dira. 1980-85 urteetan, gai hauen inguruan hainbat pertsona zebilen, zerbait

egin beharra zegoela eta hainbat ekintza bultzatuz. Non daude pertsona haiek? Nola jarraitu dute ekintza haiek? 15 urte pasa dira dagoeneko eta Teknologia Berrien munduak aurrera egin du, etengabe. Orduan bazetorrela esaten zena, etorri zen eta beste hainbat gauza gehiago ere bai. Gaur egungo errealitate teknologitartua ukaezina da. Eta eskola munduan zer? Badirudi “eskola mundua” (horrela deitu badaiteke, erakunde ikuspuntutik) beste bide batetik joan dela: tresneria sartu da, bai, baina erabiltzen da? Zertarako? Beste hainbeste esan daiteke gurasoez, telebista etxe guztietan dago, ordenadorea ere geroz eta gehiago. Gurasoei galdetuz gero zera esaten dizute: “Ez zait gehiegi gustatzen baina... teknologi berriak behar-beharrezkoak omen dira gure gizartean eta...”. Ez dakite zertarako, ez dakite nola, beldur apurra ere badute, baina ... ezinbestekoak omen dira. Zergatik? Zertarako? Norentzako?


Ale honetan ikuspuntu desberdinetako pertsonen iritzia biltzen eta, batez ere, orientabide praktikoa ematen saiatu gara. Goian aipatutako galderei bakoitzak bere erantzuna aurki diezaion lagundu nahi dugu. Ez gara sartu ideologi edo filosofi kontu teorikoetan, eguneroko lanerako proposamen eta orientabide zehatzak ematen baizik.

Eta Teknologia hauek komunikazioan bitartekari badira, komunikatzeko ahalmena ere handitzen dute. Beraz, horixe aprobeztatzuz, hona hemen gu-

# ia, informatzeko eko?

---

re telefonoak eta posta elektronikoak. Ale hau ez  
dadila izan informazioa zabaltzeko idazki hutsa,  
komunikazio aberatsa sortzeko bidea baizik.



Telefonoa:  
943-714157



E-posta: [liburutegia@huhezi.edu](mailto:liburutegia@huhezi.edu)  
Webgunea: [www.huhezi.muni.es](http://www.huhezi.muni.es)

# Baliabideak

## ■ LIBURUAK

**KAPLUN, M. (1998) *Una pedagogía de la comunicación*. Madrid: De La Torre.**

Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia Berrien munduan lana egiten duen edozeinek irakurri beharreko liburua da. Berez, ez dago zuzendua Teknologia Berrietara, baina bai gure mundu honetan nola komunikatzen garen aztertzeraz. Oso atsegina, irakurterraza eta zeharo praktikoa da. Orain dela bi urte hil zen Mario Kaplun hegoamerikarra eta bere lana zehazteko hitz hau erabiltzen zuen: "educador".

**PEYRÚ, G. (1993) *Papá, ¿puedo ver la tele?*. Buenos Aires: Ed Paidós**

Oso liburu atsegina irakasle zein gurasoentzat. Haurrek txiki-txikitatik telebistarekin zer nolako harremanak dituzten aztertzen du. Harreman horietan nola parte hartu eta gure heziketa eredu propioa lantzeko baliabideak ematen ditu. Azkenik, urtez urte, gure haurrentzako telemenua aukeratzeko oso pista baliagarriak ematen dizkigu.

**FERRES, J. (1994): *TV y educación*. Barcelona: Ed. Paidós**

Irakasleei zuzenduriko testua da. Eskola ingururako prestatua dago, eta bertarako dira zehazten diren proposamenak.

**AGUADED, J.I. (1999): *Convivir con la TV*. Barcelona: Ed Paidós**

Atera berria den testu hau oso interesgarria da. Gaur egungo egoeraren ikuspegi osoa eta zabala ematen du, bai Espainiako Estatukoa, bai mundu osokoa. Bere gune nagusiak gurasoak, eskola eta haur-gaztetxoak dira. Bere ikuspuntuak eta baliabide praktikoz ondo osatua egoteaz gain, gai honen inguruan lanean dihardutenen hainbat erreferentzia aurkitu daitezke.

**CHAZARRA, A. - GARCÍA, L. (1994): *La televisión. ¡No te quedas mirando!*. Madrid: CEAPA**

Gurasoen eskoletara zuzenduriko gidak dira. Confederación de Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos de España argitaratu zuen, Ministerio de Educación eta Ministerio de Asuntos Sociales-en laguntzarekin. Oso interesgarria da. Gurasoen hizkuntza mailara egokituta dago. Gurasoekin gaia lantzeko proposamen zehatzak egiten ditu eta berauek lantzeko materiala eskaini.

**GRUPO SPECTUS (1996): *Aprende conmigo. La televisión en el centro educativo*. Madrid: De La Torre / MEC**

Gurasoei zuzendua. Gurasoak eta eskolan bertan egiten den lana lotzen ditu. Gida moduan egina dago eta hainbat ariketa eta lan proposamen ditu.

**ASOCIACIÓN PARA LA ALFABETIZACIÓN AUDIOVISUAL DE TORONTO (1998): *Guía para la enseñanza de los medios*. Madrid: De la Torre.**

Ikus-entzunezko baliabideak eta komunikazioaren inguruan ikastetxe-proiektua osatzen du. Gelan lantzeko hainbat unitate didaktiko eskaintzen ditu. Gai hauek Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan lantzen dituen mundu mailako erakunde garrantzitsuenetakoa da.

**MASTERMAN, L. (1997): *La enseñanza de los Medios de Comunicación*. Madrid: De la Torre.**

Ingeles hau zeharo erabakiorra izan da munduan Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia Berrien irakaskuntzan. Lan hau irakasleei zuzenduriko eskuliburua da. Zergatik irakatsi komunikabideei buruz? Zein da irakaskuntza hori egiteko era errazena? ... Eta antzeko galderak erantzuten saiatzen da. Autonomia kritikoa landu nahi du, medioen ideologia, beti ere ekonomia eta eragin soziala baztertu gabe.

**DE SUR A SUR (1998), 14.zk. *Telemática solidaria***

Teknologia Berriak mundu honetako hegoaldetik ikusita.

## ■ INTERNET OTURAK

<http://www.screen.com/mnet/fre/>  
**RÉSEAU ÉDUCATION-MÉDIAS - CANADA.**

Talde honek 10 urte darama komunikabideen eta hezkuntzaren inguruan lanean. Web orrialde hauetan hainbat aholku, ariketa, trikimailu, ideia, esperientzia, unitate didaktiko eta abar aurkitu ditzakezu. Guztiak ere gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta daude. Kanadako guraso elkarrean elkarrekin sortua da eta bere helburu nagusia teleikusle edo irratientzule gaituak hezitzea da.



**Informazio gehiago nahi ezkererona hemen  
helbide elektronikoa eta Fakultateko telefonoa:  
mikel\_usabiaga@huhezi.edu / 943-714157, 943-714188 (101 luzapena)**

<http://members.es.tripod.de/altzo/>  
**TELEBISTAREN ETA HAUREN INGURUAN.**

Telebista eta haurrak gaiaren inguruan interesa dutenentzako zuzenduriko elkargunea izan nahi du.

<http://www.pntic.mec.es/>  
**PROGRAMA DE NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y DE LA COMUNICACIÓN. MEC.**

Ministerio de Educación erakundearen webgunean dago. Hainbat dokumentu eta lotura ditu, bereziki "TV, MAV Y EDUCACIÓN" atalean. Hala nola: "Convenio para la autorregulación de las televisiones y su seguimiento", "Resolución del Parlamento Europeo sobre el contenido ilícito en Internet", "Resolución del Parlamento Europeo sobre el libro Verde relativo a la protección de los menores y de la dignidad humana en los nuevos servicios audiovisuales y de información", e.a.

<http://www.ntedu.org>  
**COMUNICACIÓN, TECNOLOGÍA Y EDUCACIÓN.**

UNED eta Fundación Universidad-Empresa erakundeek antolaturiko "Master en Nuevas Tecnologías de la Educación y de la Comunicación" inguruan sorturiko webgunea da. Bertan hainbat dokumentu eta lotura interesgarri aurkitu ditzakezu unibertsitate mailako irakasleek egindakoak edota aukeratuak.

## ■ TALDEAK ETA ALDIZKARIAK

**HEKO KOLEKTIBOA: Hezkuntza eta Komunikazioa**

1998ko abenduaren 10 eta 11n Donostiako Magisteritzako Eskolan burutu ziren Heziketa eta Komunikabideei buruzko jardunaldietan aurkeztu zen publikoki. Hiru urte daramate lanean helburu honekin: heziketa eta komunikabideak uztartu, ikertu eta lantzea. Beraiei buruzko informazio gehiago jaso dezakezu *Hik hasi* aldizkariako 34. zenbakian (1999ko urtarrila). Gure inguruko irakasleek osatuta dago eta bertan parte hartzeko gonbitea luzatzen diote gai honen inguruan interesa duen edozein irakasleri. Telebista gaia lantzeko programak prestatu dituz-

te: helduentzat, gurasoentzat, haurrentzat eta gazteentzat. Harremanetarako telefonoa: 943-353080.

**GRUPO SPECTUS. Grupo de Investigación sobre Temas Audiovisuales y Medios de Comunicación en Educación.**


Irakaslez osatutako taldea. Bereziki Aragoe ingurukoak. Urte asko daramate gai hauek lantzen. Hainbat material argitaratzeaz gain, interneten webgunea dute (www.spectus.net) eta bertan hainbat informazio eta material praktikoa lortu daiteke.

**GRUPO COMUNICAR: Colectivo andaluz para la Educación en Medios de Comunicación.**

Andaluziako irakasle eta kazetariz osatutako taldea da. Hainbat urte daramate irakaskuntzaren eta komunikazioaren inguruan lana egiten. Aldizkari bat argitaratzen dute: *Comunicar*. Horrez gain, beste hainbat material osagarri argitaratzen dituzte. Informazio gehiagorako: Apdo. 527. 21080 Huelva. e-posta: comunica@teleline.es. Webgunea: <http://www.teleline.es/personal/comunica/>

**APUMA: Asociación de Profesores Usuarios de los Medios Audiovisuales.**

Espainiako Estatuan gai honen inguruan dagoen elkarerik handiena. Aldizkari bat argitaratzen dute Teknologia Berrien inguruan: *Educación y Medios*. Horrez gain, hainbat jardunaldi, ekintza eta material osagarri ere sortzen dituzte. Aldizkaria interneten irakurtzeko edo informazio gehiago lortzeko: <http://www.arrakis.es/~apuma>



# Zergatik komunikazioa

## Mikel Usabiaga

mikel\_usabiaga@huhezi.edu  
Mondragon Unibertsitatea  
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea

**G**aur egun “Teknologia Berriak” hitzak edozertarako erabiltzen dira, eta azkenean ez dakigu zertaz ari garen hitz egiten. Gure kasuan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriei (IKTB) buruz ari gara.

### Eta zer dira Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak (IKTB)?

Informazioa eta Komunikazioa helburu duten medio desberdinak (testua, hitza, irudia, soinua, e.a.) garraiatzeko, metatzeko, gestionatzeko edota kodetzeko balio dezaketen sistematik; edozein dela horiek egiteko erabiltzen diren oinarriak eta bideak. Horrela esanda, badirudi arbelak ere bete ahal dituela baldintza horiek. Baina, erabiltzailearen aldetik beste hiru ezaugarri azpimarratu behar dira: informazioan zehar nabigatzeko aukera, jasotzen denarekin elkarrekiteko aukera, tamaina edo kopuru handiak.

(Ikusi 1. Irudia)

### Eta hau dena non edo nola gauzatzen da gure gaurko irakaskuntzan?

Gizarte bakoitzak bere Teknologia Berriak izan ditu. Erromatarren garaian “via” deituriko bideak izan ziren, Errenazimendu garaian zaldi bidezko postak. Bere garaian garrantzi handia izan zuten Informazioaren eta Komunikazioaren aldetik. Teknologien ikuspegitik, bere garairako Teknologia Berriak ziren eta aldaketa handiak ekarri zituzten. Horrela, garai desberdinak aztertzen joan gitezke, baina ez da hori gure gaurko honen helburua. Ikus dezakezue, garai bakoitzak bere Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak ditu.

Ikus ditzagun orain arte oso erabiliak izan diren Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia batzuk: inprenta testuentzako, irratia/telefonoa ahotsa eta soinuarentzako, argazkigintza irudi finkoarentzako, telebista/zinema irudi mugikorarentzako eta soinuarentzako. Hauek guztiek bi ezaugarri dituzte amankomunean:

1. irudia

## Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia Berriak

### EDOZEIN MEDIO:

Testua  
Hitza  
Soinua  
Datuak  
Irudi finkoa  
Irudi mugikorra,  
e.a.

GORDETZEN DA  
GARRAIATZEN DA  
GESTIONATZEN DA  
KODETZEN DA  
KONTROLATZEN DA

**Informatzeko  
Komunikatzeko**

EDOZEIN OINARRITAN (analogikoa/digitala)  
EDOZEIN BIDE ERABILIZ (sareak, telefonoa, diskoak, urak, e.a.)

**NABIGATZEA  
ELKARREKITEA  
KOPURU HANDITAN**

Berez, ez dira  
birezgarriagoak edo  
objektiboagoak



# informazioaren eta teknologia berriak?

- Medio bakarrentzako balio dutela: edo testua, edo ahotsa/soinua, edo irudia/soinua, e.a.
- Aurrena pertsona talde handi bati mezuak bidaltzeko sortu zirela. Erabiltzaile arruntak mezuak jasotzeko aukera bakarrik zuen, eta hainbat denbora pasa arte ez ziren sortu edozeinek edozeini mezuak bidaltzeko aukerak: inprenta txikiak / fotokopiagailuak, magnetofoiak / kaseteak / bideozintak / bideo kamerak, argazki makina arruntak eta errebelatu azkarrak eta merkeak, e.a.

Teknologia hauek guztiak erabili izan dira irakaskuntzan. Hasieran eskuratzeko zaila zen informazioa jasotzeko: argitalpenak, prentsa, testu liburuak, irrati emisioak, kaseteak, zinema, telebista, bideoa. Kasu guztietan edozein gai ikasten ari zen ikaslea informazio horren jasotzailea zen. Informazioa prozesatu eta landu egiten zen, baina ikasleak ez zuen sortzeko edo elkarrekiteko aukerarik. Bigarren pausu batean ikasleak testuak, ahotsa edota irudia grabatzeko aukera izan zuen. Oraingoan, sortzailea ere bazen eta komunikazioa lortzeko bidean jarri zen.

## Zer gertatu da gure gaurko gizartean? Egoera hori aldatu da? Zerk aldatu du?

Nire ustez egoera erabat aldatu da gure gaur egungo gizartean, eta aldaketa horren eragileak mikroelektronikaren eta informatikaren munduak sortu dituen aukera berriak izan dira. Ikus ditzagun aldaketa horiek:

- Orain arteko informazioaren eta komunikazioaren teknologia guztiak asko merketu dira eta erabiltzeko inoiz baino erosoagoak dira. Gure gizarteko ikasle gehientsuenen esku egoteko aukera dute. Etxe guztietan dugu telebista bat gutxienez, edota hainbat irratikasete, edota telefonoa. Etxe askotan dugu bideo kamera edota ordenagailua (hiritik batean edo... esaten dutenez).
- Multimedia erako giroak sor daitezke modu eroso eta merkean. Hau da, gai hau bera aurkezteko, hainbat tresnaz lagundurik (retroproiektorea, bideo-kanoia, ordenagailua, mikroa, e.a.) medio desberdinak (transparentziak testu eta irudiekin, bideoa, grafikoak, e.a.) batera erabili ditzaket.
- Multimedia erako aparatu berriak sortu dira. Aparatu edo-

ta tresna bakar batean ditugu medio guztiak batera: testua, ahotsa, irudia, soinua, e.a. Tresna hori multimedia erako ordenadorea da.

- Inoiz baino informazio kopuru handiagoak heltzen zaizkigu eta maneia ditzakegu, aukeratzen jakitea arazo handia bihurtuz. Gainera informazio hau bat-batean hel daiteke gure planeta honetako leku batetik bestera. Hor ditugu telefono sarea, komunikazioetarako satelite sareak (telebista bereziki), internet-a.
- Informazio iturriak geroz eta esku gutxiagotan daude eta berauen jabeen interesen arabera moldatzen dute errealtatea.
- Ikasleak, multimedia edota multimedia eran lan eginez, mementu berean tresnarekin elkarrekiteko aukera du, hau da, informazio iturriarekin elkarrekiteko aukera du eta informazioan zehar nabigatu dezake, bere interesen arabera (teorian behintzat).
- Ikasleak, multimedia edo multimedia eran lan eginez, gure planeta honetako ia edozein lurraldetako pertsonekin jarri daiteke harremanetan modu azkarrean eta erosotan, nahi izanez gero bat-batean (baldin eta bera bezain aberatsa bada).

## Baina hau dena ez da esaten den bezain polita. Hona zalantza batzuk:

- Gezurra da Teknologi Berri hauek munduko edozeinen eskuetan daudela. Bakarrik herrialde aberatsenetako biztanleen eskuetan daude, eta beti bertako jauntxoek menpe.
- Nork gidatzen du, benetan, gurdi hau? Nork antolatzen ditu eta nortzuen eskuetan daude Teknologi hauek?
- Hona hemen Paloma Arroyo irakasleak esaten diguna: *La nueva tecnología no tiene como objetivo aumentar el conocimiento sino rentabilizar y potenciar la capacidad de informar, de comunicar, y de esta forma el individuo puede convertirse en usuario sin más, sometido a instrucciones cuya finalidad última no sea el aprendizaje sino la eficacia de su trabajo, determinado enteramente desde fuera de quien deja de ser un sujeto para convertirse en un objeto.*
- Noam Chomskyk, Teknologia Berrietan oinarrituz, propaganda erako komunikazioa duen gizartean bizi garela esaten digu.

# Gai monografikoa

- Ignacio Ramonetek gehiegizko informazioak norberak informazio horretaz jabetzeko dugun askatasuna gutxitzen duela esaten digu. Kantitatea omen dugu nagusi, eta horrek kalitatea gutxitzeko eta benetako edukinak gutxitzeko aukera paregabea ematen omen du.

**Halere, denok onartzen dugu Teknologia Berriak gure eskola inguruan sartu behar ditugula esatea. Zergatik ote? Gizartearen jabe direnen prezioz? Edo beste arrazoi batzu daude?**

Nik hauxe aipatuko nuke:

Orain arte beti pentsatu izan dugu bizi izandako eta zuzenean esperientziaren bidez eraikitzen dela nortasuna eta lortzen dela jakintza, baina hau dagoeneko ez da horrela egungo munduan. Gehienetan beste norbaiten edo zerbaiten bitartez lortzen dugu jakitea, ez zuzenean geure esperientziaren bidez. Batzuetan familia, lankide edo adiskideen bitartez. Eskolagaria, berriz, prozesu pedagogikoaren bidez: irakasle, ikas-kide eta liburuen bidez, alegia. Gaur egun, jaiotzen garenetik hil arte, informazio/komunikazio-bide masiboek, Teknologia Berrietan garatu eta oinarrituriko baliabideek, etengabeko bitartekaritza zertzen dute errealitatearen eta gure artean.

Ondorioz, ingurunearen berri izatea, nortasuna eraikitzea eta sozializazioa Informazio eta Komunikazioko Teknologia Berriek errealitateaz eta gizarteaz ematen duten bertsioaren eta interpretazioaren bidez egiten dira. Bada teknologia berrietan oinarrituriko jakintza bat, nahiz eta hori bakoitzaren nortasunak edo bizi garen ingurunearen eta testuinguruen eraginek interpretatua eta iragazia egon. Honela, teknologia berrien bitartekaritza honek funtsezko heziketa-balioa du gure ikasleentzat.

(ikus 2. irudia)

Topikoa dirudien arren, esan gabe doa Informazio eta Komunikazioko Teknologia horiek gero eta garrantzi handiagoa dutela mende-bukaera honetako jendearen bizitzan. Hona hemen adibide deigarrienetakoak: banketxeak Internet-en, telebista-eskaintza “aurretiaz ordainduta”, egunkariaren edizio elektronikoa, sare telematikoak, telefonia digitala, Euskalnet, Internet, sukalde adimendunak, multimedia aisialdirako... Hau guztia etorkizun baten atarikoak baino ez da, eta etorkizun horretan komunikazioa eta informazioa, gero eta euskarri anitzagoetan, nonahi agertuko dira herritarren bizitzan (esan liteke ia badirela dagoeneko).

Unibertso mediatiko honek, batetik, baliabide askoren artean jendea “**nabigatzeko**” gai izatea eskatuko du, horietaz baliatzeko gai izatea bere lan edo aisialdiko premiak asetzeko. Beraz, garrantzitsua da horien erabilera “teknikoa” jakitea. Baina honek gero eta garrantzi txikiagoa du. Gero eta errazagoa da baliabide tekniko berriak erabiltzea, eta hala izan beharko du, batez ere guztiok erabil ditzagun nahi badute konpainia handiek. Automobilekin gertatu den gauza bera da: hasierako lehen tramankuluek mekanikaz dezente jakitea eskatzen zioten gidariari; gaur egun, ordea, autoek automatizatuta dituzte ia funtzio guztiak eta praktika-ordu batzuk aski dira horiek menderatzeko.

Bestalde, jendeak gero eta beharrezkoagoa izango du “**ikus-entzunezkoetan alfabetatzea**”, baliabide eta mezu guztien aurrean azterketa-gaitasuna eta zentzu kritikoa izateko eta, azken batean, tresna deskodetzailaz ongi hornituta egoteko. Eta erronka hau eskolari dagokio. Ez da gauza bera errealitatea prozesu razionaletan oinarrituriko informazio idatzien bidez ezagutzea, edo ikus-entzunezko eta multimediazko errepresentazioaren bidez ezagutzea, honek ondorio asko baitu sentiberatasunean, emozioetan eta jarreretan.

2. irudia

## IKTBAK BETAURREKOAK MOLDATZEN




Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak Izugarritzko Indarra dute mundua ikusteko ditugun betaurrekoak moldatzerakoan

Ez hainbeste mundua erakusterakoan edo aztertzerakoan.

Bai bereziki guk gure barnean mundua ikusteko eta ulertzeko dugun eran.

# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?



Sara Osuna irakaslearen hitzekin esanda:

... ikasleei nolabaiteko apatia sumatzen zaie eskolan. Eskolatik kanpo egunero eskuartean dituzten baliabide eta materialak ez dira agertzen eguneroko heziketan. Industri gizartera zuzendutako eskola-ereduaren eta informazio-gizartera zuzendutakoaren arteko leizea gero eta handiagoa da. Honek esan nahi du zenbait teknologiarekin gelan egin daitezkeen praktikak, teknologia horiekin erlazionatzeko moduak aztertzea eta ekoizpen-eredu jakin bat hartzea informatikak eskolan eta jendearen geroko lan-munduan izango duen zereginari buruz hausnartu beharreko puntuetako batzuk direla.

Kontuan izan behar dugu eskolaren eginkizunetako bat "ikasleak bizitzarako prestatzea" dela eta ez lukeela hori beteko informatikoki alfabetizatuko ez balu. Hizkuntza alde - tik analfabetoa dena errazago manipulatzeko da; irudiak, gra - fikoak, bizitzan inguruan duen material informatikoa... des -

kodetzen analfabetoa dena ere bai.

Tresnak eman behar dizkiegu ikasleei teknologia berri hauek integratzen laguntzeko, eta nola informatzen eta komunikatzen duten ikas dezaten; horiek ulertu eta aztertzeko gaitasuna izan behar dute, beren irizpideak izan eta erabakiak hartzeko aske izan.

Eta hau hasieratik egin behar da. Alferrrik da esatea aurrerago egiteko kontua dela: gure ikasleak mundu horretan murgilduta daude jaiotzen direnetik, gu geu edo gure ikastetxea bezalaxe.

Gure Jakingarriak aldizkariaren ale honetan honen inguruko hausnarketa egin nahi dugu, bereziki gure gizartean indar gehien duten Teknologi Berrien inguruan: telebista eta informatika. Ea zuen gelatan lana egiteko baliagarriak zaizkizuen.

## Globalizazioaren diskurtsoa: baliabide neoteknologikoen sakralizazioa hezkuntzan

**E**z da erraza globalizazioa, neoteknologiak eta hezkuntza bezain gai konplexuak aztertu ahal izateko gida-haria bilatzea. Besteak beste, honela, terminoak elkarren ondoan jarrita hasten garenean gai bat aztertzen, zeharka bada ere aitortzen ari garelako ez dugula argi ikusten termino horiek aipatzen dituzten “errealitateen” arteko lotura.

### • Globalizazioaren diskurtsoa: baliabide neoteknologikoen sakralizazioa hezkuntzan

“...ez dago giza aniztasun handirik ziberespazioan: biztanle hauek 50 urte baino gutxiagokoak dira, denbora asko dute ordenagailuak erabiltzeko, oso trebeak dira teklatuan, iritzi sendoak dituzte eta oso lotsatiak dira zuzeneko harremanetan, beste sexu-koekin batez ere”. Barlow, J.; Ramonet, I.-n aipatua (1998:166).

“Zein mirariren bidez Latinoamerikako hiri kasgar, Afrikako herririka edo New Yorkeko aldirietako haurrek topo egin lezakete elkarrekin ziberespazioan?” Gresk, A.; Ramonet, I.-n aipatua (1998:205).

“EBBBetan ere... internautaren profila oso markatua da: gizonezkoa, zuria, diruduna”. Gresk, A.; Ramonet, I.-n aipatua (1998:205).

Ez da erraza globalizazioa, neoteknologiak eta hezkuntza bezain gai konplexuak aztertu ahal izateko gida-haria bilatzea. Besteak beste, honela, terminoak elkarren ondoan jarrita hasten garenean gai bat aztertzen, zeharka bada ere aitortzen ari garelako ez dugula argi ikusten termino horiek aipatzen dituzten “errealitateen” arteko lotura. Nire aldetik, uste dut, globalizazioari buruz idatzi berri diren gauza batzuen azterketak lagundu didala teknologia berrien erabilerak hezkuntzan dituen puntu ilun askoren arteko batzuk argitzen.

Has gaitezen termino horietako lehenengoarekin. Globali-

zazioa azkenean ideologia prefabrikatu bihurtu da (Mattelart-ek



*pretê-a-porter* deitzen du), mundu-ordena berriaren konplexutasuna azaldu baino gehiago ilundu egiten duena.


Ezin da ukatu munduan globalizazio-prozesuak (homogeneizatzaileak) ari direla zertzen merkatu, finantza-zirkuitu, enpresa eta beste zenbait arlotan; baina hori bezain egia da,

# diskurtsoa: logikoen untzan

**Aquilina Fueyo**

mafueyo@correo.uniovi.es  
Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Oviedoko Unibertsitatea

Bordieuk planteatzen duen bezala, prozesu horiek benetako arrisku larrian ari direla jartzen Europako estatuak ongizate-mailan egindako lorpenak, hauek deuseztatuak ari direlarik geratzen merkatuko indarren eraginez. Prozesu honen ondorioz, estatuak gero eta gehiago egin-kizun polizial eta zapaltzaileak ari dira betetzen, eginkizun sozialak baztertuz. Ikuspegi honetatik, esan dezakegu globalizazioa zatiketaren sinonimo dela unibertsalizazioarena baino gehiago eta uste dugu egoera hau, batez ere azken urteotan, hezkuntza-eremuan nabaritzen dela gehien.



Bestalde, komunikazioa bihurtu da gizarte global berri honen paradigma nagusi: **“gizaki guztiok senide izango gara”** (lehenengo Erakusketa Unibertsalaren eslogana) informazio-bide berriei esker. Multimedia eta Internet arloko gailu berriak agertzean ideologia euforiko bat sortu da, aurrerapen teknologiko handiak gertatzean beste garai batzuetan ere izan zirenen antzekoak. Jarrera hauek bereziki erabilgarriak dira utopia politiko handiek lur jota dutela dirudien garaian: komunikazioak ordeztu utopia berri eterea eskaintzen du, hain indibidualista eta ezaugarri politikorik gabea, ezen ezinezkoa gertatzen baita horren gezurdatze soziala.

Diskurtso hauek oso bestelako zerbait ezkututzen dute, hain agerikoak ez diren foroetan zertzen den zerbait: komunikazio-gailuen kontrola eta arau eta sistemei buruzko hegemonia lortzeko borroka basatia, baita sarea gero eta gehiago merkaturatzearen ondorioz sareaz baliatzeko dauden gero eta desberdintasun gaindiezinoak ere.

Honen ildotik, **inozoa litzateke globalizazioa fenomeno positibotzat hartzea**; globalizazioa izan liteke homogeneizazioaren sinonimo, baina baita, Mattelartek dioen bezala, zatiketa eta segmentazioaren sinonimo ere. Globalizazioak komunikabideek zabalduriko diskurtsoen homogeneizazioa dakar berekin, eta honek eragin nabaria izango du sarean: pairatzen ari den eta etorkizunean pairatuko duen eraso komertzialaren mende zenbat eta lehenago erori orduan eta eragin handiagoa. Gaur egun diskurtso globalizatzaileek errealitatea desitxuratzeko dute edota, besterik gabe, manipulatu egiten dute, batez ere kontsumoa bultzatzeko, beste edozein diskurtso alternatibo zatikatuz.

Globalaren, kulturartekoaren, mestizajearen balioaz oso argi ohartu dira publizistak, eta berehalaxe hartu dituzte erakargarri gisa.

Ildo beretik, zenbait elkartek, beren izaeragatik burujabe izan eta merkatu-legeen aurka jokatu behar luketenez, birdefinitu egin dituzte herritarrekiko eta gizarte zibilarekiko harremanak, enpresa-komunikazioko eredu baliatuz eta beren irudia zenbait produktu saltzeko erakargarri gisa erabiliz. Nahiko nahasgarria da erakunde horien interesak zenbait puntutan bat etortzea zenbait enpresaren interesekin, erakargarri gisa erabiltzen dituztelarik. Kontsumoari lotuta honelako konpromiso solidarioa bultzatzen denean, oso apustu indibidualista egiten da, kontzientziak lasaitzeko indar handia duena.

Honelako testuinguruan, betiere herrialde garatuetan noski, ari gara **baikortasun handiz teknologia berriak hezkuntza-munduan sartzen**, horrela, batzuek dioten bezala, teknoeuforiaren fenomeno sortaraziz. Teknologia horiei beren jarraitzaileetako askok egozten dizkieten abantaila argitsuen aurrean, itzal batzuk ere jarri beharko genituzke, batez ere aipatu duguna bezalako globalizazio-prozesuan duten zereginagatik.

Teknologia berriei bertute ia magikoak egozten dizkien gizarte-diskurtsoa hezkuntza-munduan berregiteak aztertu beharreko beste joera batzuk ezkututzen ditu. Adibidez, **hezkuntza-erakundeak nola ari diren makurtzen zenbait**

# Gai monografikoa

**gizarte-eragileren (baina, batez ere, eragile komertzialen) aurrean, hauen onurarako delarik teknologia berria eskola-munduan sartzea.** Horren aurrean, gutxitan eskatzen zaie teknologia berri horiei beren abantailak benetan frogatzeko; izan ere, batzuetan gauza bera egin daiteke teknologia zaharago eta merkeagoekin.

Teknoeforia hau oso nabarmen ikusten da komunikabideek, batere zentzu kritikorik gabe, hezkuntza-arloko berrikuntza teknologikoei buruzko berriak emateko moduan. Ondorengo hau bezalako albisteak ohikoak dira honelako informazioak emateko:

INTERNETEK LANDA-ESKOLAK HURBILDU DITU.  
"Aldea Digital"ek 273 herri asturiar lotu ditu

*La Voz de Asturias, 1999ko otsailaren 14a*

**"Asturiasko landa-eskolak bere bakardadea gainditu du, teknologia berrietan oinarrituriko irakaskuntza-eredua bereganatzean. 44 kontzejutako 273 herri osatzen dute Aldea Digital programa... Proiektu hau bultzagarria gertatu da Asturiasko herrixken komunikazioetan, bera abian jartzeko, telefono-haria 127 herritara eramane behar izan baita, aurrez zerbitzu hori ez zeukatelako. Hain zuzen ere, bitartekoen gabezia honek eta Asturiasko landa-eskualde honen baldintza geografikoek atzeratu egin dute Aldea Digitala abian jartzea, urte-bukaerako aurreikusia zegoena".**

4 URTEKO ADITUAK. Ikasleek harrituta uzten dituzte irakasleak beren trebetziaz. La Voz de Asturias, 1999ko otsailaren 14a.

*Llanerako Villabonan eskola-ume gehienek inoiz ez zuten ikusi PC bat.*

Informazio hau zehatz aztertuta, galdetu genezake ea 127 herri horietan telefonoa ez ote zen beharrezkoa Aldea Digital-a iritsi baino lehen, zer ulertzen den sarearen bidez bakardadea gainditzeaz, nola litekeen haurrak aditu bihurtzea hain denbora laburrean (aurrez inoiz PC bat ikusi gabe), zertan bihurtu diren aditu, eta abar eta abar.

Ondoren (labur bada ere), **teknologia berriek hezkuntza-arloan duten zeregin berritzaileaz eztabaida kritikoa sortzeko kontuan izan beharreko zenbait puntu aipatuko ditugu:**

- **Teknologia berriek berekin duten ustezko metodologi ahalmena. Ikasteko, motibatua egotea baino zerbait gehiago behar da.** Teknologia Berrietan oinarriturik erabiltzen diren produktu pedagogikoetako askok ikaskuntza-eredu konduktistak erabiltzen dituzte, gaur egun nahikoa eztabaidatuak diren ereduak.

*"Balio du Logok artea irakasteko? Soil-soilik arte gisa definitzen bada Logo arte-arloan egiteko gai dena, eta ez da asko" (Roszak 1988).*

- **Baliabideen eta metodoen arteko loturarik eza. Edo nola egin betiko gauza bera Teknologia Berriekin.** Arazo honen adibide paradigmaticoak dira sarearen erabilera irakaskuntzan edo multimedia-produktu gehien oinarrian dauden ikaskuntza/irakaskuntzako ereduak.

*"...ikaskuntzan hobekuntza, gertatzen denean, bitartekoak erabiltzeko metodo pedagogikoari egotzi behar zaio"* Clark (1983). Bitartekoen ondoriozko ikaskuntzei buruzko ikerlan ugari aztertu ondoren, Clarkek zera aipatzen du: ikertzaile eta irakasleek lilurapena jasaten dutela irakaskuntzan baliabide berriak sartu eta bitarteko berri horiei egotzen dizkietenean ikaskuntzako aurrerapenak, nahiz eta hobekuntza kasualak izan edo ospearean eraginez zertuak.

- **Bitartekoen eta xedeen arteko nahastea.** Nagusi den teknoeforiak batzuetan ahaztarazi egiten du garrantzitsuena ez dela teknologia berriak, baizik eta **ikasgelan zertarako erabiltzen diren.**

Garrantzitsua ez da gure ikasleek testu-prozesagailua erabiltzen jakitea, idazten jakitea baizik. Garrantzitsua ez da gure ikasleek irudiaren irakurketa egokia egiten jakitea, baizik eta hau baliagarri izatea publizitateak beraien gain duen eraginaren aurrean kritikoak izan daitezen; adibidez, markako arropa kontsumitzeko gaian edo gazteak anorexiara eramaten dituzten moden aurrean.

Kontu hau gaizki planteatuta egon da hasieratik, teknologia berriak sartzeko irakasleei eman zaien prestakuntzatik bertatik hasita: baliabideak teknologi mailan menderatzea azpimarratu da, eta ezer gutxi edo batere ez da esan horien erabileraz ikaskuntza-irakaskuntzako testuinguruetan.

Halaber, teknologia berriak ikastetxeetan sartzeko MEC-Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik bertatik bultzatu diren proiektuak luzaroan gehiago arduratu dira ikastetxetara ekimamendua bidaltzeaz, baliabide horien zentzuzko erabilera bermatzeko antolaketa-baldintzak ziurtatzeaz baino.



*"La aguja de marear" 14, 1997ko abendua, portada*



# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?



"La aguja de marear" 11, 1996ko azaroa, 17. orr

• **Teknologia berez ona eta neutroa den sineskizuna.** Une jakin batean ez dira azterzen ez teknologia nagusien edukiak, ezta horiek ezartzeko mekanismoak ere: teknologia batzuetatik besteetara salto egiten da, beti azken modan egon nahirik, eta bere garaian berriak izan eta zenbait testuingurutan oso eraginkorrak zirela frogatutako baliabideak baztertu egiten dira: Nork hitz egiten du gaur egun ikasleekin argazkilaritza lantzeaz edo zinearen erabilera didaktikoaz? Honela, merkatuaren logikari jarraitzen zaio eta ez pedagogia-aren logikari. Irakasleok teknologia berrien saltzaileekin

identifikatzen gara (legitimatuz egiten ditugu ikasgelan sartzean) eta mezu dominatzaileen berresle bihurtzen gara, baliabideak nekez erabiltzen baitira mezu horiek eztabaidatzeko. Ildo beretik aztertu beharreko beste gai bat, **Teknologia Berrien bidez transmititzen diren mezuen ustezko garrantzia edo egokitasuna** izango litzateke, batez ere Internet eta zabor-informazioari buruzko guztizian.

• **Teknologia berriak erabiltzeko, aurrez ikus-entzunezko alfabetatzerik behar ez den ustea.** Bitarteko berriak sartzeak aldi berean alfabetatzea eskatzen du, hor elkartzuz hizkuntza berriei buruzko ezagupenak, baliabide berri horien guztien oinarritzko ezagupen teknikoak eta baliabidearen azterketa kritikoa, betiere kontuan izanda erabiltzaile hezi beharra dagoela bai mezuak hartzeko, baina baita bidaltzeko ere.

Orain arte esandakoak **gure jarrera oso ezkor eta negatiboa dela pentsaraz dezake**. Horregatik, ñabardura batzuk egin behar ditugu. Teknologia berriek irekitako aukerei bizkarra ematea jarrera zentzugabe samarra izango litzateke (ia suizida, esango nuke); ez dut uste Internet erre beharrik dagoenik, baina **beharrezkoa iruditzen zait adi eta erne egotea** sareak hartzen dituen norabideen aurrean, eta batez ere tentuz ibili behar dugu, geure lanbideagatik, horretan erantzukizun zuzenekoagoak dauzkagunok. Behar izanez gero, **militantzia kritikoa zertu beharko genuke hainbat mailatan: zabaltzen diren diskurtso manipulatzaileen identifikazioa** eta diskurtso horien irakurketa kritikoa egin dezaten jendea prestatzeko lana; **benetan berri eta emantzipatzaile diren erabilerak bilatzea teknologia horiei**; munduko biztanle gehienek **bitarteko horietaz baliatzeko aukerarik ez izatea** etengabe salatzea, eta honen ildotik sarearen ontasun eta abantailen **diskurtso totalizatzaileak errefusatzeta** eta azterketa soziopolitiko bidezkoagoen testuinguruan kokatzea; sarean lekua hartzeko aukera herritarrei emango dieten **estrategiak zertzea**, botere ekonomikoari loturiko taldeek, ustiapena eta menderakuntza beraien onurarako ezkatzen dituzten mezuak zabaltzeko, sarea erabat berenganatu ez dezaten.

## LABURPENA

### Globalizazioaren diskurtsoa: baliabide neoteknologikoen sakralizazioa hezkuntzan

\* Globalizazioa ideologia prefabrikatua, munduko ordena berria azaldu baino gehiago ezkatzen duena.

\* Globalizazioa eta ongizatearen Estatuaren lortutakoaren krisia.

\* Komunikazioa gizarte globalaren utopia berria.

\* Globalizazioa eta komunikabideetan eta sarean zabaldutako diskurtsoen homogeneizazioa.

### *Teknologia berriak hezkuntzan sartzea testuinguru honetan: teknoeuforia. Eragozpenak:*

- Hezkuntza-erakundeak akritikoki ari dira makurtzen hainbat eragileren interesetara, hauentzat oso onuragarri baita teknologia berri hori sartzea.

- Teknologia berriek omen duten ustezko metodologiaren ahalmena.

- Bitartekoen eta metodoaren artean loturarik eza. Edo nola egin betiko gauza bera Teknologia Berriekin.

- Bitartekoen eta xedeen arteko nahastea. Zertarako teknologia berriak?

- Teknologia ez da berez ez ona ez neutroa.

**Militantzia kritikoa behar da hainbat mailatan:** zabaltzen diren **diskurtso manipulatzaileak identifikatzea** eta jendea prestatzen lan egitea diskurtso horiek kritikoki irakur ditzan; **teknologietan benetan berri eta emantzipatzaile diren erabilerak bilatzea**; munduko jende gehienak **bitartekoez baliatzeko duen aukeraz etengabe salatzea**, eta honen ildotik sarearen ontasunei buruzko **diskurtso totalizatzaileen errefusapena**, azterketa soziopolitiko bidezkoagoen testuinguruan kokatuz; **sarean lekua hartzeko aukera herritarrei emango dieten estrategiak garatzea**, botere ekonomikoari loturiko taldeek, ustiapena eta menderakuntza beraien onurarako ezkatzen dituzten mezuak zabaltzeko, sarea erabat berenganatu ez dezaten.

### ZENBAIT BIBLIOGRAFI AIPAMEN:

BORDIEU, P. (1999): **Contrafuegos. Reflexiones para servir a la resistencia contra la invasión neoliberal.** Barcelona: Anagrama.

CHOMSKY, N. eta DIETERICH, H. (1997): **La aldea global.** Navarra: Txalaparta.


MATTELART, A. (1998): **La mundialización de la comunicación.** Barcelona: Paidós.

RAMONET, I. (1998): **Internet, el mundo que llega. Los nuevos caminos de la comunicación.** Madrid: Alianza.

(1998): **La tiranía de la comunicación.** Madrid: Debate.

# PENTSAMENDU BAKARR

## Lehoi erregea-ren irakurketa bat



Disney Color, 13. Leon: Gaviota, 1999

### ZER DA PENTSAMENDU BAKARRA?

Zer ote da? Teoria soziologiko berriren bat? Historiako ikasgairaren bat? Irratiko berriketariren batek Estatuko egoera politikoa definitzeko erabili duen hitza? Duela gutxi argitaratutako liburu baten izenburua?

Pentsamendu bakarra hasia da aro baten espiritua markatzen duten ezaugarriak izaten. Gaur egun eztabaidagai da liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan... termino honek laurogeita hamarreko urteetako mundu-sistemaren egoera berria definitzeko gaitasuna duelako.

Edonola ere, lehen hurbiltze batean, esan daiteke pentsamendu bakarra egungo gizarte-eztabaidan dagoen gaie-

tako bat dela. Ondorioz, "bokaziodun" hezitzaile orok sentitu beharko luke gai honekiko jakin-min bizia, pentsamendu bakarraz zerbait jakin ondoren, gero hori eskola baitako hausnarketan nola txertatu bilatzeko.

Honen ildotik, gaurkotasan ikaragarria du hezkuntzan klasikoa den liburu bateko pasarte batek: Barbiano eskolako "Maistra bati gutuna" delakoaz ari gara. Eskola honetako ikasleek, gehienak eskola-sistemak bazterturikoak, ondorengo gogoeta egiten zuten egunkaria ikasgelan sartu zela-eta (ez ahaztu 60ko hamarkadako Italian gaudela):

*"Mende erdi honetako historia zen ongien nekiena. Errusiako iraultza, faszismoa, gerra, erresistentzia, Afrika eta Asiako askapenak. Nire aitonak eta aitak bizi izan duten historia. Neuk bizi dudako historia ere ongi nekien. Hau da, Barbianoan egunero hasieratik azkeneraino ozen irakurtzen genuen egunkaria... Baina egunkariko ezerk ez du balio zuen azterketa horietarako. Honek erakusten du ezer gutxi dagoela zuen eskolan bizitzarako balio duena"*(1).

Barbiano ikasleen intuizioari jarraituz, ikus dezagun nola moldatzen garen gu, laurogeita hamarreko urteetako hezitzaileok, pentsamendu bakarra (egunkarietan agertzen da, bai) eskola-eremuan aztertu ahal izateko eta, aldi berean, eskolaz kanpoko mundua ulertzeko balio izan dezan.

Azken urteotan pentsamendu bakarrak ugari egin diren hausnarketa guztietatik, jendeak gehien ezagutzen dituen idazleetako birenak aukeratuko ditugu: Joaquín Estefanía eta Ignacio Ramonet-enak.

Lehenengoak, "El País" egunkariari atxikiak, honela definitzen du pentsamendu bakarra:

*"Gaur egun politikoki zuzena pentsamendu bakarra da, kontserbadurismo eta liberalismo ekonomikoaren nahastura heterogeneoa, honelako baieztapenetan oinarritua: ekonomiaren lehentasuna politikaren aurretik, merka -*

**Victor Manuel Marí Sáez**

ECOE-Hezkuntza Komunikazio Taldeko  
eta UNEDeko *Informaziorako eta Komunikaziorako*  
*Teknologia Berrietan Masterreko Irakaslea*  
E-mail: vmari@hotmail.com

*tua demokraziarekin identifikatzea, eliteen lehentasunetan gizarte-kohesiorik ez planteatzea, pertsona giza baliabide soiltzat hartzea”(2).*


Orduan, gaur egun gizarte-bizitza osoa arautzen duen ekonomi sistemara igortzen gaitu pentsamendu bakarrak. Sistema honek, Berlingo harresia 1989an erori, Sobietar Batasuna desagertu eta Golkoko Gerraren ondoren, lurbira osoa hartzen du inolako mugarik gabe: kapitalismoaren eta pentsamendu neoliberalaren globalizazioaren lekuko gara.

Ikus dezagun orain nola definitzen duen Ignacio Ramonet “Le Monde Diplomatique” aldizkariko zuzendariak:

*“Pentsamendu bakarra, zenbait indar ekonomiko -ren —batez ere, kapital transnazionala dutenen— interesak unibertsal izan nahi duten termino ideologikoetara itzultzea da”(3).*

Ekonomiak politikaren gain duen nagusitasuna azpimarratzeaz gain, egoera honen aktore nagusiak zein diren adierazten digu Ignacio Ramonetek: enpresa transnazional gutxi batzuk eta munduko burtsa handienetan eguneroko jaun eta jabe den finantza-kapitalismoa.

Hona hemen grafikoki gizarte-antolaketa pentsamendu bakarraren aroan:



Sistemaren gailurrean ekonomia dago; praktikan horrek gobernatzen du eta horrek ezartzen ditu estatu-politiken ildo nagusiak. Erabaki makroekonomiko handiak (Europako dirubatasuna, euroa) ez dira legebiltzar nazionaletan hartzen. Beste foro ekonomiko batzuetan hartzen dira, eta horietan zer esan gutxi izaten dute demokratikoki aukeraturiko ordezkari politikoek.

Bestalde, pentsamendu bakarraren aroan nazio-estatuaren papera gero eta apalagoa da. Ekonomiaren globalizazioak bi jokabide izan ditu helburu hori lortzeko: nazio-mugak ezabatzea eta Estatuaren egitekoak murriztea (hezkuntza, osasunean, gizarte-prestazioetan). Neurri hauek, ondorioz, politika ekonomiaren mende jartzea dakarte.

Azkenik, Iparreko herrialdeen kultur sistema pentsaera postmodernoarekin konformismo eta indibidualismoan oinarritzen da. Filosofia neoliberalak eten egiten du modernitateak gizartea eraldatzeko sortutako proiektu utopikoekin.

Egungoaren alternatiba izan litekeen gizarte-ordena ororen aldeko ahalegina “lasterraren kontra joatea” bezala da, izokinak ibaiaren sorbururaino arrautzak errutera igotzen direnean bezala.

Pentsamendu bakarrari dagokion gizarte-antolaketa hau Iparreko herrialdeetan, adibidez gurean, gertatzen denaren errepresentazio sinple-sinplea da. Baina sistema honek badu periferia bat, Hegoa, non arazo hauek guztiak gordinago agertzen baitira. Hain zuzen ere, han ikusten dira gizarte-ordena honen ondorioak: biztanle gehienek pobrezia eta miseria behar dira gutxiengo batek ongizate-maila handia izan dezan, materialki unibertsalizatu ezin diren mailak. Le Monde Diplomatique-ren 30. zk.an Ignacio Ramonetek zera zioen:

*“Munduko biztanle guztiak suitzarren bizi-maila balute, planeta honek nekez aseko lituzke 600 milioiren beharrak”(4).*

Beraz, zer egin gainerako 5.000 milioiekin?

Pentsamendu bakarraren aroko gizarte-antolaketak erdigunean eta periferian banatzen du planeta, eta termino hauek ez datoz nahitaz bat geografi kontzeptuekin (Iparreko hirietan, Madrilen adibidez, “Hegoa” daukagu periferian, Vallecac-eko Triángulo del Agua delakoan; eta Hegoan, Lima hirian adibidez, bada “Iparra” Europako eliteen erosmen eta ongizatearen parekoa duten erresidentzi guneetan).

## ZER LOTURA DU PENTSAMEN- DU BAKARRAK GUREKIN, HEZITZAILEOKIN?

Bakarren batek pentsatuko zuen agian aldizkariz nahastu egin ote den. Ekonomi kontu hauek ba ote dute zeri-kusirik nirekin, nik ez baitut honelako ezer neure irakasgaien? Edota agian pentsamendu bakarra ikasgelan ikus-entzunezko heziketarekin lotzeko artikulu honen idazleak egin beharko duen buru-filigranaren zain egongo da norbait. Edonola ere, artikulu hau irakurtzen hasi zaretenok bukatzeko ere aitzakia-  
ren bat izatea espero dut.

Komunikabideen irakurketa ekonomiko honi zentzua eta heziketarekin lotura aurkitu ahal izateko, duela urte batzuk UNESCOk “alfabetizazioaz” eman zuen definiziora jo behar dugu:

*“Noiz dago gizabanakoa alfabetizatua? Bere ahalbideen neurrian, errealtatea ezagutu, interpretatu eta eraldatzeko helburuaz errepresentazioak (gure kasuan, ikus-entzunez-koak) KODETZEKO eta DEKODETZEKO (irakurri eta idazteko) gai denean”*(5).

Gutako askok hartzen dugun ikus-entzunezko alfabetizazioak ez digu ahaztarazi behar azken helburua errealtatea ezagutu eta interpretatzea dela, gero eraldatzeko. Eta ikusten dugu honek lotura zuzena duela Paulo Freire “askapenaren pedagogoaren” hezkuntza-planteamenduekin. Hark dioenez, hausnarketan eta kritikan oinarrituriko hezkuntza- eta komunikazio-ereduan, **informazioak formaziora** eraman behar gaitu eta gero errealtatearen **transformaziora**.

Honela bada, egungoa bezalako testuinguru sozioekonomikoan, oso zuzen jo daiteke analfabetotzat errealtatea ezagutu eta interpretatzeko oinarritzakoak diren ekonomi eta komunikazio-ezagupenak ez dauzkana.

XX. mende bukaerako analfabetoak buruan mundu bat du eta beste batean bizi da; Kristobal Kolonen sindromea du, amerikar kontinentea zapaldu eta, hala ere, Indietan zegoela uste baitzuen.

Horregatik, lekuz kanpo ez geratzeko, onena zera da: hezitzaile arduratsu eta profesionalak garenez, lehenbailehen hastea ekonomian eta komunikazioan prestatzen, gai hauetaz gutxi edo ezer ez dakigulako lotsatu gabe. Honela, gure ikasleak ere ohartuko dira ez garela “jainko orojakileak” eta, beraiek baino zaharragoak izan arren, oraindik badugula zerbait gehiago ikasteko gogoia eta beharra.

## INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK ETA EKONOMI SISTEMA KAPITALISTA BATERA DOAZ

Informazioaren teknologiez hitz egiten dugunean (telebistaz, telefonoaz, ordenadorez, etab.) horien produktuak ez ditugu lotzen euskarri duten bilbe ekonomikoarekin.

Telebistako albiste-saio bat, teleserie bat, magazine bat, internet... gure informazio edo entretenimendurako egindako produktuak baino “zerbait gehiago” dira. Ahalik eta mozkinik handiena atera nahi duten enpresa batzuek merkaturatutako produktuak dira. Industri ekoizpen guztiaren logikaren mende aurkitzen dira.

Informazioaren teknologien eta ekonomi sistemaren arteko harremanari buruz hausnarketa egin zuten lehenengoak Frankfurteko eskolako teorikoak izan ziren. Eta “kultur industriak” terminoa asmatu zuten baliabide hauek zertzen duten errealtatearen eraikuntza-prozesua aipatzeko. Industria hauek kultur ekoizpena industrialki antolatzen dute interes bikoitzaz: ahalik eta onura ekonomiko handiena lortzea eta gizarte-adostasuna fabrikatzea.

Kultur industriei buruz ondorengo definizioa proposatzen du Ramon Zallok:

*“Sorkuntza-lanaz asmaturiko eta eduki sinboliko -ak dituzten salerosgaiak ekoitzi eta banatzeko adar, segmen-  
tu eta jarduera laguntzaileak dira, balioztatzen den kapital-  
antolatutako eta, azkenean, kontsumo-merkatuetara bide-  
ratuak, erreproduzio ideologiko eta sozialaren eginkizuna-  
rekin”*(6).

Denborak ematen duen perspektibarekin, kultur industrien bi helburu hauek gaur egun ere indarrean daudela ikusten dugu. Lehenengoari buruz, gaur egun informazioa eta komunikazioa beste salgai bat direla ikusten dugu. GATTek, gero OMC-Munduko Merkataritza Erakunde bihurtuak, zera gomendatu zuen 1996ko abenduan:

*“Telekomunikazio-zerbitzu guztien erabateko liberaliza-  
zioa, inolako murrizketa orokorrik gabe”*(7).

Bigarren helburuari dagokionez, komunikabideak enpresa gisa hartuta, hauek ez dute produktuak saltzea bakarrik bilatzen, baita zerbait garrantzitsuagoa ere: bezeroak erosi eta egituratzea. Hiritarren gauzak ulertzeko moduak ezartzen dituzte, orientazio-baloreak, gero beraien mezuen asimilazioa ziurtatzeko. L. Masterman, Zeller edo Giordanok, adibidez, honela aurkezten digute:

*“Ekonomia politikoaren perspektibak komunikabideak eta kultur industria hartu behar ditu kontuan, aldi berean horien izaera ekonomiko eta salerosgai gisa duten erabateko espezifikotasuna aintzat hartuta. Azken hau oro har sistema ekonomikoari buruz komunikazioak zertzen duen erreproduzio-funtziotik dator (eta ez soilik ekoizpen-funtziotik); hau batez ere publizitatearen bidez eta kontsumo-ko gizarte-arauak —ekoizpen-zikloa harmonikoki gauzatzeko nahitaezkoak diren arauak— antolatuz lortzen dute, baita sistema ekonomiko eta politikoaren premien arabera jokabide funtzional batzuk biztanleengan ezarri ere”*(8).

Komunikabideak kultur industria gisa hartzeak beraien enpresa eta ekonomi dimentsioa gogoratzen laguntzen digu. Beraiek independente, objetibo eta neutral gisa aur-



Disney Color, 13. Leon: Gaviota, 1999

kezten dira, eta honela, eusten dien egitura ekonomikoa ezkutatzeke estalkia botatzen dute beren gainera, egungo gizartetan komunikazio masiboen garatzeko aukerak estrukturaliki mugaraziz.

Komunikazio-erakundeak batez ere onura ekonomikoak gidatzen dituenean, ikus-entzuzkoen ikuspegitik ahalik eta ikus-entzuleen indizerik handiena lortzeko helburuarekin aukeratzen eta artikulatzen dira mezuak. Egungo komunikabideetan eztabaida ezina den premisa hau, XXI. mendeko hiritarra “alfabetizatzeke” helburuaz informazioaren teknologia erabiltzearen aurka dago zuzen-zuzenean.

Behin hau esan ondoren, ñabardura bat ere erantsi behar zaio baieztapen honi: badira informazio-teknologiaren beste erabilera batzuk, baita komunikabideen produktoren batzuk ere, gutxienak izan arren, hemen aurkezten ari garen hauen antzeko jarrerak dituztenak.

## EGIA OTE DA PENTSAMENDU BAKARRA AGERTZEN DELA WALT DISNEY-REN LEHOI ERREGEA-N?

Ez hori bakarrik. Pentsamendu bakarra modu eredu-garrian agertzen da Disney lantegiaren ekoizpen honetan. Jakina, hori ikusteko, pentsamendu kritikoaren “betaurrekoez” ikusi behar da filma. Pentsamendu bakarraren betaurrekoiez ziur aski ez da ezer anormalik ikusiko film honetan.

Puntu honetan, moralki ohartarazpen bat egin beharrean nago Walt Disney haurren inozentziaren babesletzat daukaten borondate oneko hezitzaileentzat, hots, uzteko arti-

kulu hau irakurtzeari, ez badute beren idoloa lurrera eraitsita ikusi nahi nire gogoeta maltzurron eraginez. Urrundu aldizkari hau gure seme-alaba eta ikasleen begietatik! Tira, hobe orrialde hauek bakarrik kentzea, zenbaki honetan idazten duten beste lagunek ez baitute errurik.

Film honen azpian datzan diskurtso ideologikoa esplizitazeari ekitean, ezin dut neure burutik kendu neu naitzela istorio honetako gaizkilea, sentimendu maltzurroko izakia, megafonoa eskuan duela lehen mailako geletatik dabilena ozen aldarrikatuz benetan nor diren Meltxor, Gaspar eta Baltasar, edo hauen parekide anglosaxoi bizarzurria.

Sentimendu honekin batera, badut beste bat inkonformismo eta errebeldiazkoa, inplizituki eta akritikoki sentimendu positiboak eta ideologia neoliberalak elkartzen dituen film honen aurrean. Isildu egingo naiz ondorioz ez aurreratzeko. Ekin diezaiozun azterketari.

“Lehoi erregearen” filmaren kritikan osagai “razionalak” sartzeko, hona hemen ondoren ideologia hori bereziki adierazten duten zati batzuen azterketa.

### 1. Hasierako abestia: *Bizitzako zikloa*

Hasierako abestiaren egitekoa filmaren agertzen den gizarte-antolaketa aurkeztea da. Oso garrantzitsua da ohar-tzea marrazki bizidunen film hau animalien erreinuan giro-tua dagoela. Zer esan nahi du honet? Joera dugula pentsatzeko hor agertzen den gizarte-ordena “berezkoa”, “normala”, gardena dela pentsatzeko joera dugula.

Hala ere, filma ez da telebistan animaliei buruz ematen diren dokumentaletako bat. Hor agertzen diren animaliak “gizatiartuta” daude: beren buruaren kontzientzia dute, barre egiten dute, negar, maitemindu egiten dira...

Hasiera-hasieratik, animalien erreinuan giro-tutako marrazki bizidunen generoa aukeratzeagatik, zera adierazi nahi da: “pentsamendu bakarra dela gizartean bizitzeko berezko era”. Eta lotura hori ez dago batera garbi.

Hasierako abesti honetan, gailurrean zertzen ari den botere-berritzea erakusten duten irudiak agertzen dira. Etor-kizunean errege izango dena jaio da eta espezie guztiak dira gertaeraren lekuko, aginte horren onarpen-keinua eginez: gur egiten diote errege izango denari.

*Lehoi erregea*-n agerturiko azpisistema politikoa piramide-erako antolaketa da. Animaliak oso ongi hierarkizatuta daude. Bakoitzak bere lekua du “bizitzaren zikloan”, multzo osoak bere gain hartu eta onartzen duen lekua.

Sistema hau betikotu egiten da denboran: “zikloaz” hitz egiten da, hots, ezarritako ordena berriro hasteaz. Ezabatu egiten da gizarte-ordenaren dimentsio historiko eta politikoa, eraiki daitekeen beste etorkizun baterako aukerarik eskainiko ez balu bezala.

Animali espezie guztiak hierarkizatzeke balio duen irizpidea elikadura-katean betetzen duten lekua da. Gizarte honen azpisistema ekonomikoaz ari gara, berau baita erabakigarria.


Katearen gorenean lehoia egongo litzateke, elikatzeke oso aukera zabala baitu. Gizarte-ordena horren behe-renean hienak daude, haratustela bakarrik jan dezakete eta.

# Gai monografikoa

Elikadura-irizpide honek, ekonomi mailakoak (elikadura bezalako ondasun urri baten banaketaz hitz egiten da), ordena politikoa baldintzatzen du (bizitzako zikloaren gizarte horretan betetzen den lekua). Elikadura-katean zenbat eta gorago egon, orduan eta gorago gizartean ere.

Azkenik, gizarte honen kultur sistema “status quo” batean oinarritzen da, gizarte-ordena honen legitimazio inplizitu eta esplizituan. Agintea berritzeko prozesuaren lekuko diren animalia espezie guztiek gur egiten dute, onarpen-keinu bat. Bertan ez daude ez hienak, ezta Mufasa lehoi erregearen anaia “gaizto-gaiztoa” den Skar ere.

Kultur giroa konformista da, ordena sozioekonomikora moldatzekoa; ez dago gizartea aldatzeko batere guraririk, ezta kritikoa izateko edo demokrazia “demokratikoagoa” nahi izateko ere...



Animaliek onartu egiten dute sistema hau ziklikoa dela, mugagabeki errepika daitekeela, bertan guztientzat balio duen oreka dagoelako; edota, edonola ere, sistema ez da zalantzan jartzen (beraiantzat desordena den) ordena horrekin konforme ez dauden guztiek antolaketa eraginkorrik ez dutelako.

## PENTSAMENDU BAKARRA LEHOI ERREGĒAN

### *Estatu-kolpea abestia*

Filmaren lehen uneetan proposatzen den hasierako planteamenduaren ondoren, edozein dramatan bezala, dagoen “oreka” kolokan jartzen duen gatazka sortzen da.

Desoreka hori, lehoi erregearen anaia “gaiztoa” den Skar-ekin batera hienek asmatu duten estrategiak ekarri du. Gizarte-ordena aldatu egin nahi dute, bertan baztertuta bizi baitira, hienak behintzat, elikadura-katearen bukaeran daude-


lako eta janaria lortzeko aukera mugatua dutelako. Bestalde, Skar genetikoki kaskarragoa da eta horregatik dago baztertuta.

Interesgarria da hausnartzea film honetan nola ezau-garritzen diren onak eta gaiztoak: Zergatik dira onak on eta gaiztoak gaizto? Azken hauek ekonomikoki edo genetikoki kaskarragoak direlako... Eta hau ez da ideologia?

Azter dezagun labur bada ere lehenengo ekintza hauen gertalekua. Nolako da “matxinoak” bizi diren lekua?

Beraiek sistemaren periferian bizi dira, lehoi txiki-entzat debekaturik dagoen lurraldean. Espazio hau, ikus-entzuzkoen aldetik, tonu gris eta marroien bidez adierazten da, eta kontrargiez, haitzuloko eta harkaitzetako hormetan proiektaturiko itzal handiez, hain zaharrak ez diren totalitarismoak gogorarazten dizkiguten eszena militarrez... Hienen espazioa heriotza-esparrua da: elefanteen hilerria. Dramatikoki ere hildakoen espazio gisa agertzen da, bizirik gabe.

Nabaria da sistemaren periferiari eta erdiguneari ematen zaien ikus-entzuzko tratamenduaren kontrastea. Azken honetan, argi gardena, kolore “biziak” (besteak, aitzitik, kolore “hilak” edo hitsak dira), ordena eta ongia.



Esparru honetan, idilikoa batzuentzat (zintzoentzat) eta infernuzkoa besteentzat (gaiztoentzat), nagusi den agintearekiko gizarte-alternatiba bakarra, filman agertzen denez, kaosa ekarriko duen ekintza bortitz bat da. Gizabanakoak posizio ekonomikoren arabera mailakatzen dituen gizarte-ordena honekiko ez dago beste planteamendu alternatiborik.

### *Hakuna Matata abestia*

Filman agertzen den gizarte-desordenaren aurrean kokatzeko bi modu huez gain, hirugarren bide bat bakarrik agertzen da.

Sinba, Mufasa lehoi-erregearen seme eta ondorengo



Disney Color, 13. Leon: Gaviota, 1999

izan behar duena, ihes egin beharrean aurkitzen da, aitaren heriotza berari egotziko ote dioten beldur. Baina dena Skarrek, hienekin batera, maltzurki asmaturiko plana da, agintea bereganatzeko. Eta Sinba, bere ihesaldian, oparotasunaren erresumara iristen da, eta han Timon eta Punba ezagutzen ditu, "sistematik" kanpo irtendako bi animalia. Haien goiburu bizitzan "Hakuna Matata" abestian laburtzen da:

Hakuna Matata, bizitza zein den eder!  
Hakuna Matata, zorionsu izan zaitez.  
Arazoen aurrean sufrimendurik ez,  
Hakuna Matata etengabe esanez.

Sinbak bere erresuman bizi izan duen arazoaren berri ematen dienean lagun berriei, hauek honela laburtzen diote bizitzarekiko duten filosofia: "munduak bizkarra ematen badi-zu, zeuk ere eman bizkarra munduari".

Horien diskurtsoan esplizitaturik agertzen zaigu pentsaera postmodernoa: orainaldia iraganetik deskonektatuta eta etorkizun-proiektuekiko inolako erreferentziarik gabe bizitzea, gizarte-arazoez batera kezkatu gabe, indibidualismoan eta bizitzaren pribatutasunean itxita. Ikusten dugunez, animalia hauek, Timon eta Punba, sistematik kanpo daude, baina ez dute ezer kolokan jartzen, ez diote pentsamendu bakarrari inolako kalterik egiten. Biziraun dezakete, sistemaren justiziari aurre egiten ez diotelako.

Jarrai liteke filmari buruz hitz egiten, baina aipatu dudana nahikoa da pentsamendu bakarraren ezaugarrietako batzuk argitzeko. Gainera, ez dut kontatuko filmaren bukaera, filma ikusi eta berriro interpreta dezazuen klabe honetatik.

## HAUSNARKETAN JARRAITZEKO...

Ez nuke artikulu hau bukatu nahi zuekiko komunikazioari ate bat ireki gabe. Partekatu ditugun orrialde hauek, "politikoki zuzena" delakoaren printzipio batzuk (politikaz ez hitz egitea, Walt Disney ez kritikatzeara...) apurteaz gain, uste dut komunikazio-prozesu bat ezartzeko baliagarri gerta dakizkigukeela, hemen aipatuko ditudan gai hauen inguruan:

- Komunikabideen dimentsio ekonomikoaren azterketa.

- Pentsamendu bakarrari dagokion errealitatearen eraikuntza (ideologikoaren) azterketa.

- Batere gardenak ez diren, eta horrela agertzen diren, diskurtsoak esplizitazten ikasteak duen garrantzia. Honek irakasleari ondorengo galderari erantzuteko gaitasuna eskatzen dio: Nola eraiki da ikus-entzunezko dokumentu hau? Zernolako moduak proposatzen dizkit errealitatea ulertzeko? Azken batean, ikus-entzunezko diskurtsoaren eta gure hezkuntza-praktikaren dimentsio politikoa aurkitzea.

Jakina, askoz gehiago dira pentsamendu bakarraren aroan ikus-entzunezko hezkuntza oinarritzeko klabeak. Ni garrantzikoak iruditu zaizkidan eta normalean gutxien landu ohi direneta bakarrik mugatu naiz.

Atseginez jasoko nituzke testu honen irakurketak zuei eragindako erreakzio batzuk. Horretarako, ondorengo helbide elektronikoa erabil dezakezue: [vmari@hotmail.com](mailto:vmari@hotmail.com)



## AIPUAK:

- (1) Carta a una maestra. Barbianaeko eskolako ikasleak. Hogar del Libro. Barcelona, 1986.
- (2) Contra el pensamiento único. Joaquín Estefanía. Taurus. Madrid, 1997.
- (3) Pensamiento único y nuevos amos del mundo, "Cómo nos venden la moto"-n. Icaria argitaletxea. Barcelona, 1995.
- (4) Por el futuro de la humanidad. Ignacio Ramonet. Le Monde Diplomatique, 30. zk., 1998ko apiril/maiatza. Espainierazko edizioa.
- (5) Lectura de imágenes. Roberto Aparici. Ediciones de la Torre. Madrid, 1991.
- (6) El mercado de la cultura. Estructura política y económica de la comunicación. Ramon Zallo Gakoa. Bilbo, 1992.
- (7) Apocalipsis en los medios. Ignacio Ramonet. Le Monde Diplomatique, 18. zk., 1997ko apirila. Espainierazko edizioa.
- (8) Economía y políticas de comunicación en un mercado abierto. Carlos Zeller, Eduardo Giordano. Voces y Culturas aldizkaria.

\* MARI SÁEZ, Victor Manuel (1998): "Una lectura de El Rey León. La educación audiovisual en la era del Pensamiento Único" En Educación y Medios, n.º 7. Mayo-agosto de 1998, pp 45-26

# Publizitatearen irak

## Len Masteman


University of Nottingham. Erresuma Batua  
Europako Kontseiluaren eta UNESCOren Kontsultorea

**P**ublizitateari buruz irakastea ohikoa izan da eskola askotan berrogei urte baino gehiagoz. Denbora horretan irakasleek erabilitako teknikak eta ikuspegiak ez dira asko aldatu. Oraindik ere beraien ikuspegi iragarki bakunera bideratzen da (eta ez, adibidez, *kanpai-netara*, hauen zatitxo bat besterik ez delarik iragarkia), eta iragarkiak erabiltzen dituen konbentzitzeko tekniketara (zientziak baliatzea; adituengana jotzea; aktoreengan oinarritzea; hizkuntza manipulatzea, etab.) Orokorrean, gai hau eta ikuspegi hau ongi irakatsi izan dute irakasleek, ikasleek ere ulertzen dutela dirudi eta erraz aztertzen da ordubeteko eskolaren mugen barruan.

Planteamendu honen arazoa zera da, ia zaharkitua geratu dela merkaturatzeak (*marketing*) eta publizitateak izandako garapenagatik, bi hauek eraldatu egin baitute publizitatearen beraren izaera, eta komunikabide guztiak marketing-teknikak kontuan hartzeraz behartu dituzte. Garbi dago orain “publizitatea” bera (hau da, telesaioren artean edo egunkari eta aldizkarietan argitaratutakoaren artean agertzen den material hori) produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko teknika askoren arteko beste bat bakarrik dela orain. Modako esaldiaz esanda, “marketing konbinatu” osoaren osagai bat da, konbinatu horretan sartzen direlarik babes-laguntza, produktuak ezartzea, harreman publikoak, eta hainbat sustapen-ekintza, hauetako asko komunikabideen beraien bidez egiten direlarik. Noski, ez da egokia guk iragarki bakunei buruz irakastea, gure ikasleek ikusi edo entzuten dituzten programetan askotariko merkaturatze-tekniken zaparrada hartzen dutenean.

Honela bada, publizitatearen egungo irakaskuntzan lehen urratsa hau da: ziurtatzea ikasleek ulertu dutela jokoan zer jarri duen “marketing-aren iraultzak”, honek ez baitu publizitatearen izaera bakarrik eraldatu; iraultza honek kolokan jarri ditu aurreko hamarkadako gure kultur edo hezkuntza-erakunde gehien oinarriak. Eta iraultza honen erdi-erdian oinarritzko bereizketa bat dago, ikasleei erraz azaltzeko modukoa: marketing-aren eta salmentaren arteko bereizketa.

Marketing-a filosofia bat da, baita ideologia bat ere, salmentaren aurkakoa omen dena. Saltzeak bezeroa konbentzitzea esan nahi du, beste batek ekoizitakoa eros dezan. *Pro -*



The Artist and the Picture Book? the Twenties and the Thirties



# en kaskuntza \*




*duktuan zentraturiko* prozesua da, ardura nagusia saltzailearen premietan jartzen delarik. Marketing-a, ordea, eroslearen premiez arduratzen da. *Kontsumitzailearengan* zentraturiko prozesua da, eta bezeroaren arazoak, premiak eta gurariak zein diren jakinez (merkatu-azterketak eginez) hasten da, gero premia horiei erantzungo dien produktu edo zerbitzua diseinatzen du (produktuaren diseinua) eta, azkenik, nahi diren ikus-entzuleengana zuzentzen du produktu edo zerbitzu hori. Marketing-gaietan aditua den Peter Drucker-en hitzekin esanez:

*Merkaturatzearen helburua saltzen jardun beharrik ez izatea da. Marketing-aren helburua kontsumitzailea ongi ulertu eta ezagutzea da, horrela produktu edo zerbitzua, haren beharretara oso ongi moldatua, bakarrik saldu dadin.*

Marketing-aren filosofiek eragin zuzena izan dute zuzeneko nahiz zeharkako publizitate-moduetan azken hamarkadan. Zuzeneko publizitatea argi eta garbi urrundu egin da *produktuan zentraturiko iragarkietatik*. Adibidez, gaur egun telebistako iragarki gehienek, harrigarria bada ere, oso gutxi esaten digute produktuaz, bere nolakotasunaz, egiteko ez, ezaugarriez edo prezioaz. Besteak beste, horrexegatik daude zaharkituta “konbentzitzeko teknike-tan” oinarrituriko estrategia pedagogikoak. Iragarki gehienak ez dira esplizituki saiatzen zerbait saltzen edo zerbaitetaz konbentzitzen. Adibidez, “Coca honelakoxea da” bezalako eslogan batek ez digu ezer esaten produktuaz eta ez digu arrazoirik ere ematen erosteko. Oraindik izan badira produktuan zentraturiko iragarkiak, baina zaharkituak eta antzinakoak dirudite, eta tokian tokiko automobil- edo tapiz-saltzaileen esparrura mugatzen dira, hauek behar-pen, eskaintza eta prezioei buruzko xehetasunak ematen dizkigutelarik.

Sofistikazioari dagokionean ezin daitezke konpara marketing-ean oinarrituriko iragarkiekin, hauek batez ere *kontsumitzailearengan zentraturik* baitaude. Esan dudana bezala, iragarki hauen abiapuntua helburu diren ikus-entzuleei buruzko ikerketa da, honek datuak ematen dituelarik beraien arazo, gurari eta bizimoduari buruz. Gero datu horiek ikus-entzuleen irudikapen eta antzeppen askoz ere zehatzago



The Artist and the Picture Book? the Twenties and the Thirties

eta hobeak aurkezteko erabiltzen dira. Ikus-entzuleak iragar-kiko jende edo arazo edo umore edo sofistikazio bisualarekin identifikatzen dira. Eta asoziazio bidez (hori espero da), beren burua produktuarekin identifikatzen dute.

Beraz, hauek dira zuzeneko iragarkien inguruan eman diren bi mugimendu osagarriak: produktuan zentratutako iragarkietatik urruntzea eta kontsumitzailearengan zentratutako iragarkietara hurbiltzea.

Hirugarren mugimendu garrantzitsua zera izan da, iragarkietan narrazio-teknika gero eta landuagoak erabiltzea. Narrazioa erakargarritasun handikoa da marketing-printzipioak erabiltzen dituzten iragarleentzat.

Horietako lehena, teknika horiek ez direla zuzeneko aurkezpen komertzial bat. Bigarrena, gu istorioan sarraraziz lortzen dutela gure *interesa*. Hirugarrena, guregandik *aldeko jarrera* lortzen dutela, guri ezagun eta hurbileko zaizkigun pertsonaia eta egoerak aurkeztuz. Laugarren, *produktua jar dunean edo ekintzan* erakusten dutela. Geuk zuzenean ikusten dugu, iragarleak ez dauka produktuaz ongi hitz egin beharrik. Behar izanez gero, eginkizun hori iragarkiko pertsonaiekin egiten dute. Narrazio-egiturari dagokionez, produktua ez da protagonista (batzuetan uste izaten den bezala), eragile magikoa baizik, eta beronen bidez protagonistek beren egoera eraldatu dezakete. Honen haritik, iragarkiak maitagarri-ipuin modernoak bailiran azter daitezke: etxeoandre nekatuak ama kementsu bihurtzen dira, gizon arruntak heroi eta abar eta abar, betiere arazoa konpontzen duen produktuaren laguntzaz.



Hala ere, zeharkako edo ezkutuko publizitatearen arloan izan du marketing-aren iraultzak bere garapenik ikusgarriena. Marketing-ak komunikabideak *osotasunean* hartzen ditu bere eremutzat. Honek gero eta gehiago *bat-egitera* eraman ditu publizitatekoa den materiala eta ez dena, hauxe izanik gaur egungo komunikabideen ezaugarri nagusietako bat.

Iragarkiek programen gero eta antz handiagoa duten bezala —konbentzitu baino gehiago harrapatu eta entretenitu nahi gaituzten narrazio-erak—, horrela programak berak ere gero eta gehiago dira pertsona, produktu, gertaera, ideia eta filosofia politikoak sustatzeko bideak. Telesaio guztiak azter daitezke gaur egun promozio-era bezala eta, noski, publizitatea bera da komunikabide komertzialek eta hauen forma eta praktika nagusiek duten egiturazko eragin garrantzitsuena.

Hona hemen zerrenda labur eta eskematiko bat, marketing-aren irakaskuntzak bete beharko dituen arlo eta gaia:

1. Lehen-lehenik, egungo komunikabideei buruzko irakaskuntzak honetan oinarritu behar du: iragarleei saltzen zaizkien ikus-entzuleen *segmentazio* eta partzelazioan komunikabideek duten eginkizun nagusiaren ulerkuntzan. Hau da komunikabide komertzialek egungo gizarteetan duten egitekorik garrantzitsuena; beren izateko arrazoia da, eta komunikabide komertzial guztiak azter daitezke ikuspegi honetatik.

2. Komunikabide komertzialen produktu nagusiak ez dira albisteak edo entretenimendua edo informazioa edo lehia-ketak, *ikus-entzuleak* baizik. Telebistako programak eta aldizkarietako artikulak “dohainik emandako janaria” dira, sale-

# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?

rosgaia (ikus-entzuleak) sortzeko erabiltzen den amua. Komunikabideen erakundeek ikus-entzuleak iragarleei salduz ateratzen dute mozkina, eta ikus-entzuleak dira komunikabideen benetako produktua, ez programak.

3. Publizitatea da komunikabideek jasaten duten egiturazko eragin garrantzitsuena. Arrakasta zein komunikabide duen eta porrot zeinek egiten duen erabakitzen du. Edozein kulturatako aberatsak eta behartsuak aldi berean komunikabideetako aberatsak eta behartsuak zergatik diren azaltzen du (hau da, zergatik komunikabide gehienek nahi izaten duten ikus-entzule dirudunak erakarri). Eta komunikabideetako izenburuak egituratzen diren bezala zergatik egituratzen diren ere azaltzen du. Adibidez, aldizkarietako segmentazio gero eta handiagoak ez ditu islatzen irakurlearen interesak, iragarlearen interesak baizik. Egunkari baten irakurleak zehaztasun handiagoz segmentatzeko modua da, eta iragarle egokien esku eraginkortasun handiagoz uzteko modua.

4. Albisteen azterketa jada ezin da banatu publizitatearen azterketatik, albisteetako eduki guztien %80k gutxi gorabehera harreman publikoaren industrian baitu jatorria.

5. Politikaren azterketa jada ezin da publizitatearen azterketatik banatu, Europako herrialde gehienetan gobernuaren informazio-ekoizle nagusi bihurtu baita eta publizitate-agentzien bezerorik garrantzitsuena da.


6. Kanpaina politiko guztiak, gaur egun, marketing-kanpainak dira eta horrela bakarrik azter daitezke.

7. Babes-laguntza ez da korporazioen eskuzabalatasun edo mezenasgoaren adierazpide, marketing-tresna berezi bat baizik, beronen bidez beste marketing-teknika batzuek iristezinak diren ikus-entzuleak eman edo lortu daitezkeelarik. Babes-laguntzak ez du zentzurik marketing-aren testuingurutik kanpo.

8. Produktuak ezartzea —nahiz eta legearen aurkako praktika izan herrialde gehienetan, film komertzialetan asko erabiltzen den marketing-mekanismo bat— telebistan gero eta gutxiago erabiltzen den industria da.

9. Iragarleek komunikabideak baloratzeko ez dute kontuan hartzen ikus-entzuleentzat berez duten interes eta garrantzia, baizik eta beren produktuak iragartzeko *ingurune* egokiak diren ala ez.

The Artist and the Picture Book? the Twenties and the Thirties



The Artist and the Picture Book? the Twenties and the Thirties

10. Komunikabide guztiak iragarkiak dira berez. Egunkari baten lehenengo orrialdea egunkariaren beraren iragarkia da, edukiari buruz itxaropena sortu eta erakusteko diseinatu. Aldizkari edo liburu baten azalak ere antzeko eginkizuna du. Telebistako programa baten izenburuak telebista horren iragarkiak dira. Telesail guztiak iragarkiak dira berez. Telesail bateko programa bat ikusten dugunean, oso litekeena da guk hori ikustea sail bereko aurreko programek horretara bultzatu gintuztelako. Badakigu zer espero behar dugun pertsonaia, argumentu, entretenimendu, emanaldiaren ordu eta abarri buruz. Atal bakoitza hurrengo atalaren iragarki batez bukatzen da. Atal bakoitza hurrengo atalaren iragarkia da.

11. Komunikabideak aktore, politikari, idazle, akademiko eta komunikabideen industrian lan egiten duen ororen sustapen *personalerako* lekuri garrantzitsuena dira. Eta hau idazleek beren liburuek, ekoizleek beren filmez, musikariek beren musikaz egin dezaketen promozioa baino askoz harantzago doa, hau guztia izanik elkarrizketa edo solasaldietako saioen material metatua. Eta are sotilagoa dena, telebista oro bere egileen iragarkia da, programaren ospeak areagotu egiten baitu horien balioa merkatuan, industrian kanpo nahiz barruan. Telebista-bide guztiak azter daitezke promozio personalerako estrategia gisa.

(\*) APARICI, Roberto (1996): *La revolución de los medios audiovisuales*. Madrid: Ediciones de la Torre. (2ª ed.)

# Aita! Ama! Iku



EPSTEIN Jean: *L'explorateur nu*. Editions universitaires. 1982.

**O**rain arte beti pentsatu izan dugu bizi izandako eta zuzeneko esperientziaren bidez eraikitzen dela nortasuna eta lortzen dela jakintza, baina hau dagoeneko ez da horrela egungo munduan. Gehienetan beste norbaiten edo zerbaiten bitartez lortzen dugu jakitatea, ez zuzenean geure benetako esperientziaren bidez. Batzuetan familia, lankide edo adiskideen bitartez. Eskola-garaian, berriz, prozesu pedagogikoaren bidez: irakasle, ikaskide eta liburuen bidez, alegia. Gaur egun, jaiotzen garenetik hil arte, komunikabideek —batez ere, gizarte-ekarpen handieneko komunikabideak, telebistak alegia— etengabeko bitartekaritza zertzen dute errealitatearen eta gure artean.

Gure gizartean komunikazio-sistema hunkigarri eta eragin-korrenetako bat irudiaren arloa da: zinea, argazkilaritza, TB, bideoa... Irudiak nonahi daude gure eguneroko bizitzan. Horien bidez era guztietako mezuak iristen zaizkigu, zuzenean edo zeharka baldintzatzen gaituztenak. Ondorioz, gure seme-alabak hezi beharra dago irudia beraien munduan sartzeko, baina ulertu eta aztertzeko gai denaren askatasunarekin, nor bere irizpideen jabe eta mezuaren aurrean erabakiak hartzeko gai izanik betiere.

**Heziketa honek benetako informazio edo entretenimendu-tresna bihur dezake, batez ere, TB, irizpide propio eta hautakorren arabera piztu edo itzal daitekeena.**

Telebista ez da berez txarra. Gaztearen garapenerako bizi-pen on eta mesedegarriak eskaini ditzake. Ongi erabilia, jarra eta bizimodu onak lortzeko lagungarri izan daiteke, eta

# Is dezaket telebista

**Mikel Usabiaga**

mikel\_usabiaga@huhezi.edu

Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea

jokabide desegokiak aldatu edo zuzentzeko gizarte-, kultura- eta dibertsio-mailako irtenbideak eskain ditzake. **Nola erabiltzen dugun da kontua.**

Hezkuntza-prozesu orotan bezala, familiak eta eskolak funtsezko zeregina betetzen dute, bizitzako lehen urteetan batez ere.

**- Nolako telebista-eraginak transmititzen dizkiegu seme-alabei?**


**- Nolako telebista-eraginak transmititzen dizkiegu ikasleei?**

**- Nolako azturak?**

**- Nolako jarrerak ditugu telebistaren aurrean?**

Jaten edo esfinterrak kontrolatzen irakatsi nahi diegunean bezala gertatzen da TBrekin: prozesu honen emaitzak bizitza osorako markatuko ditu. Gizon-emakume nagusi askok TBren inguruan dituzten ohituren atzean, haurtzaroan familian bizi izandako esperientzia iraunkorrak daude. Seme-alabei telebista ikusten irakastea, jaten, irakurtzen edo idazten irakastea bezain garrantzitsua da.

Baina bada arazo bat. Gure gurasoek edo gure inguruneak ematen dizkigute jarraibide batzuk seme-alabak puntu askotan nola hezi jakiteko, baina ezer askorik ez telebistari buruz: ez dago tradizioz, ez dago famili jakinduriarik, baliabide "modernoa" baita. Ideiak eta laguntzak falta zaizkigu, ez dugu inolako heziketarik izan horretaz eta askotan geure seme-alabak bezain gatibatuta gaude geure ere arazo honetan.



Aurreko pasarte hori berdin-berdin idatz genezakeen, gurasoen ordez irakasleak ipinita eta seme-alaben ordez ikasleak jarrita. Artikulu honetan gurasoak eta familia aipatuko ditut, baina esandako ia guztia aplikatu dake eskola-munduari. Ezberdintasun bat bakarra dago: gaur egun badago behar hainbat esperientzia eta lan serio irakasleok geure burua birziklatzeko eta ikasleei irakasten hasteko nola ikusi behar duten TB edo nola irakurri eta idatzi behar duten irudiekin; hau gure lanbidearen beste eskakizun bat da, letra bidez irakurtzen eta idazten irakastea bezalaxe.

Baina jarrai dezagun galdera honekin:

**zer egiten dute haur jaioberriek TBren aurrean? Jartzen diote arretarik?**

\* 6 hilabete arte noizean behin begiratzen diote pantailari eta, hori egiten dutenean, ez diote ezer zehatzi begiratzen; kolorea, soinua eta mugimendua dituen gauza bat besterik ez da.

\* 1. urtera iristean, eta beraien gelan TB piztuta baldin badago, denboraren %6 ematen dute hari begira.

\* 2. urtera iristean, denboraren %40.

\* 3 eta 4 urte bitartean nahiko ongi trebatuak daude eta telebistaren aurrean dauden denboraren %67 ematen dute arretaz begira.

\* 5 urterekin, ia ez dute begirik pantailatik kentzen eta TBri eskainitako arreta-denbora %75ekoa da gutxi gorabehera.

**Nola lortzen da trebakuntza hau TB erabiltzen?**

\* Gurasoek norantz begiratu, haurantz begiratzen dute haur txikiek. Honela, gurasoak TBri begira badaude, haurrek

# Gai monografikoa

gauza bera egiten dute. Honela hasten da trebakuntza.

\* Hasieran denbora guztia ezagun eta hurbileko zaienari begira ematen dute, bueltak emanez eta zentzuren bat bilatu nahirik. Inguruko beste gauza askorekin bezalaxe, lehenik eskuaz erakusten dituzte gauzak, eta gero izenak esaten dituzte.

\* Urte eta erdirekin, askok gai dira TB piztu eta itzaltzeko, baita kanalez aldatzeko ere. Azken hau askotan atentzioa erakartzeko modua izaten da, aitak edo amak arreta gehiago jartzen badio TBri haurrari berari baino.

\* Bi urterekin gai dira gogoko duten telesaioa eskatzeko.

\* Bi urte eta erdirekin jada badakite TB erabiltzen.

Oso familia eraginkorrak baldin bagara, denbora berean heziko ditugu seme-alabak jaten, esfinterrak kontrolatzen, hitz egiten edo TB erabiltzen.

**Haurrek informazioa hauteman eta telebistako mezua ulertu eta asimila dezaten, beharrezkoak dira:**

\* arreta

\* oroimena

\* funtsezkoa eta azalekoa bereizteko gaitasuna

\* kausa eta efektua bereizteko gaitasuna

Gauza hauek guztiak gertatzen diren garaian, haurra bete-betean bere bilakaeran egoten da, bere nortasuna garatzen, baita **errealitateaz duen kontzeptua eta berarekin erlazionatzeko trebetasunak** garatzen ere. Adin hauetan, pertsona helduarekin parekatuta, ez dira gai:

\* **kausa eta efektua bereizteko (batez ere 6 urte baino lehen).**

Eraso bortitz bat ikusten badute pantailan, ez dituzte ulertzen emandako arrazoiak eta ondorioak, ezin dute irakaspena ulertu, ezta batere ondorio moral edo etikorik atera ere ikusitakotik. Eten bat baldin badago, ez dira gauza aurrez ikusitakoa gogoratzeko, edo testuinguruaz baliatzeko istorioaren hariari jarrai diezaioten.

\* **funtsezkoa eta azalekoa bereizteko**

TBn asko erabiltzen da hainbat istorio aldi berean elkarrekin nahastuta eta adar desberdinekin kontatzeko baliabide teknikoak. Haur txikiek ez dute gaitasunik informazio hori guztia prozesatzeko, babesgabe geratzen dira horren aurrean eta modurik pentsaezinezan eragiten die.

**Aita edo ama behar dute informazio horri guztiari zentzia aurkitzeko. TBn istorio bat ikusi aurretik, testuinguru bat baldin badute hori kokatzeko, aurretiazko informazio horren arabera interpretatuko dute, edo ikusi ahala hartzen dutenaren arabera.**

**TB ez da gurasoen edo irakasleen azalpenen aurka borrokatzen, ordezkatu egiten ditu ez dauden lekuan.**

Arazoa beste honetan dago: jakin badakigu **trebetasun hauek batez ere 6 urtetik aurrera garatzen dituela haurrak**. Beraz, galdera hau egin behar dugu:

**Haurrak telebistaren hurrean bakar—bakarrik daudenean, zer ulertzen eta nola asimilatzen ote dute ikusitakoa?**

Baina aurrez ikus ditzagun TBren kontsumoari buruzko datu batzuk:

## KONTSUMOARI BURUZKO DATUAK

Askotan telebistaren kontsumorako orduak gehitu egin badira, berdegunerik ezagatik, gurasoek seme-alabentzako astirik ez izateagatik, etxebizitzetan lekurik ez izateagatik eta honelakoengatik izan da.

- 80ko hamarkadan, 4-13 urte bitarteko haurrek telebista ikusten emandako denbora astean 20 orduetik 23ra igo zen.

- 1990ean, mutil gazteen zaletasunak ordena honetan zeuden: TB ikustea, lagunartea/kopak, kirola, paseoa, ezer ez egitea, musika entzutea, hobbyak, jokoak, irratia eta txangoa/bainua. Neska gazteenak, berriz: TB ikustea, lagunartea/kopak, paseoa, musika entzutea.

- 1994an, Espainiako estatuan, helduak TBren aurrean batez beste 3 ordu eta 12 minutu eman zituen egunean. Eta 4-13 urte bitartean, normalean telebista ikusten ez zuten haurren kopurua ez zen %5era iristen.

- Gaur egun, telebistaren aurrean gaztetxo nerabeek astean batez beste 25 ordu ematen dituztela kalkulatu da. Bi ordu eta erdi eta hiru ordu artean egunean.

Gazteek TBren aurrean hirurogei mila ordu inguru ematen dituzte eskola-adin osoan; ia eskolan ematen duten denbora bertsua eta gurasoekin baino gutxiago.

Hala ere, ez da ahaztu behar datu hauek batez bestekoak direla: beti izaten da gehiago ikusten duenik eta gutxiago ikusten duenik.

Larriena zera da, TB gehiago ikusten dutela behartsuek aberatsek baino, emakumeek gizonek baino, jubilatuek eta haurrek gainerakoek baino. Kontsumitzaile handienak kulturalki prestakuntza txikienekoak dira.

Azken adibide bat: 1975ean TB ez ikusteagatik astean 1.500 pta. ordaindu zitzairen 184 familia ingelesi; bakar batek ere ez zituen 5 hilabete baino gehiago jasan. Gauza bera Alemanian. Familia hauek tabako, alkohol edo beste droga batzuen abinentzi sindromearekin bezala portatu ziren.

# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?

**Koadro klinikoa** ere deskribatu izan da, haurrentzako **ondorio negatiboekin**: arreta zerbaitetan jartzeko zailtasuna, asperdura, sarri suminduta egotea, nekea, urduritasuna, portera erasokorra, amesgaiztoak, kontsumoaren obsesioa, pazientziarik eza, ikusmenaren asaldurak, loaren asaldurak, kontsumo-aztura txarrak... Gehiegizko dosiak egoera ia hip-notikoak eragiten ditu, pasibotasuna eta mendekotasuna, aha-legintzeko indarra ahultzeaz gain.

TB ikusteari uzten dion haurrari kostatu egiten zaio zeregin berri bati heltzea, ohetik jaiki berritan bezalaxe; baztertuta zeukan errealitate batekin topo egitean, berrekitearen sindromea izaten du, ekintzarik eta konpromisorik ezaren atseginari uko egitean sentitzen duena. Birmoldatzeko garaia izaten da, erabateko kontzientzi ekoizteko.

TBren aurrean denboraldi luzeak eman dituztenengan, zera ikusi izan da:

- Mintzamenaren blokeoa
- Jolasaren blokeoa: ez elkarrekintzarik, ez ikerketarik, ez ingurunearen azterketarik.
- Hausnarketa edo gogoetarako gaitasunaren blokeoa, bulkada, emozio eta sentimenezko erantzunak emanez.

Honela, bada, garbi dago telebista asko kontsumitu eta ikusten dela; ikus ditzagun orain bere on-gaitzak edo alde on eta txarrak:

## TELEBISTA IKUSTEAREN ALDE ONAK

- Telebistak aukera ematen digu bestela ezagutuko ez genituzkeen errealitateak, gizarteak, kulturak, herrialdeak... ezagutzeko.
- Telebistak aukera ematen digu bestela izango ez genituzkeen sententzio eta sentimenezko bizipenak, gehienetan atsegingarriak, lortzeko. Kirol-emanaldietan, adibidez.
- Irudiaren munduan sartzeko era bizkor eta eraginkorra da telebista.
- Heziketa eta prestakuntzarako tresna ona izan daiteke telebista.
- Telebistak ikuskizuna eta kultura sartzen ditu etxean.
- Irudiaren munduarekin loturiko hainbat gaitasun intelektual zertzeko aukera ematen du telebistak.

## TELEBISTA IKUSTEAREN ALDE TXARRAK

- Aisialdi edo libre dugun denbora gehiena TB ikusten ematen bada, ez da astirik gelditzen jarduera positiboagoetarako, hauek nortasuna eta adimena garatzeko beharrezko ikas-kuntza ematen dutelarik. Honek asko mugatzen ditu norberaren garapenerako aukerak.



EPSTEIN Jean: L'explorateur nu. Editions universitaires. 1982.

- TB gehiegi ikusteak norberaren trebetasunen garapena desorekatu egiten du. Neurritz gain garatzen dira irudiari buruzkoak, baina ez dira lantzen, adibidez, irakurmenari buruzkoak.
  - TBk hautsi egiten du komunikazioa eta zaildu egiten du gurasoen eta seme-alaben arteko elkarriketa.
  - Gaizki ulertutako indarkeria eta sexuaren dosia gehiegizkoa da.
  - Errealitatearen aurrean ihes egiteko jarrera bultzatzen du.
  - Iragarkiek neurririk gabeko kontsumismoa bultzatzen dute eta mundu irrealak sortzen dituzte, non zertu ezinezko arakastak proposatzen baitira.
  - Beldurraz baliatzen da.
  - Sentiera irrealak edo norabide bakarrekoak irakasten ditu.
  - Egiaren eta errealitatearen izenean informazioa manipulatzen du.
- Hortaz, orain arte esandako guztiaren ondoren, jokabide hauek proposatzen dizkizuet:

## JOKABIDEAK

Ulertzea lortu behar da, ez azterketa hutsa. Egintza afektibo-intelektuala da. Atsegina ukatu gabe ikasi behar da. Edota, nahiago bada, atseginaz baliatuz eta beroni esker ikasi behar da. Haurrek gozatu egiten dute TB ikusten, baina beren sentimenduekin gozatzen dute, ez arrazoi logikoarekin.

8-9 urteko haurrekin egindako esperimentuetan, TBri buruzko heziketa eman zaienean (printzipio teknikoak, adierazpen-kodeak, estetika-nozioak), telesaiok aztertze gaitasun handiagoa erakustez gain, gehiago aukeratu dituzte hain kaskarrak eta konbentzionalak ez diren programak. Honetarako, gauzak barrutik nola eginda dauden jakiteko haurren berezko jakin-mina aprobetxatzen da.

Helburua esperientzea aberastea da, ez ukatzea; telebista gogoeta eta kritika eginez ikustea, baina sentimenezko eta emoziozko atsegina ukatu gabe. Ametsen interpretariak ere ez du amets egitea ukatu edo eragozten, baizik eta hori sakontasun handiagoz esperimentatzeko aukera ematen du.

### Hona hemen **OINARRIZKO LAU ADIGAI:**

1. Garrantzitsua da haurrak inoiz ez ikustea TB berak bakarrik.
2. Garrantzitsua da telesaiok aktiboki aukeratzea, edo gurasoek zuzenean edo, adinaren arabera, seme-alabei aukeratzeko lagundu.
3. Seme-alabei ezarri egin behar zaie, edo beraiekin hitzartu, egunean zenbat denbora ikusi behar duten TB.
4. TB ikusteko modua ahalik eta aktiboan, kritikoen eta komunikatiboena izan dadin saiatu behar da. Beti hitz egin beharko genuke seme-alabekin TBn ikusten dutenaz. Baina betiere atsegingarria den zerbait ulertzetik hasita, gero azterketa intelektuala egiteko.

**Helduaren eragina oso handia da irudien eta haurren arteko bitartekari gisa. Zioak ulertzen lagundu behar die, ondorio eta eragin emozionalak minimizatzen eta, batez ere, indarkeriaren erabilera baloratzen edo arazoak konpontzeko beste hautabide batzuk aurkezten.**

***Norberaren hezkuntza-ereduaren eta telebistaren artean konparaketarik ez badago, telebistak berea ezarriko du; eta gaur gaurkoz ez dirudi oso gomendagarria.***

Aurreko aholku horiek osatzeko, hona hemen

## **ZENBAIT HAUTABIDE ERAGIN NEGATIBO BATZUEN AURREAN:**

### **Denbora gehiegi ematea TB ikusten?**

Aisialdia banatzeko beste hautabide batzuk eskaini behar zaizkie. Honek familiako elkarbizitza eta gure aisialdia antolatze era birplanteatzea eskatzen du, seme-alabei denbora gehiago eskaintzeko (zuzenean edo beste bide batzuetatik). TBri bere lekua eman behar diogu, baina ez dadila izan aisialdirako aukera bakarra.

### **Irakurmenaren garapenik eza?**

Irakurketa bultzatu behar da seme-alabekin batera ekin-tzak eginez: eredu edo jarraibideak eskaini, beren adinaren arabera irakurgaiak eskura ipini, etab.

### **Gurasoen eta seme-alaben arteko elkarrizketa eragozte?**

Familian ematen dugun denbora birrantolatu eta ez utzi TBk dena harrapa diezagun. Hitz egin seme-alabekin gogoko dituzten gai eta programez. Hau modu ona izan daiteke gauzak aldatzen hasteko eta TB aitzakia izango litzateke komunikazioa hobetzeko. Ez mespretxatu sistematikoki atsegin dutena eta ez baloratu umekeria edo negatibotzat beraien zale-tasunak. Gazteak umeagoak izango dira edo ez harrarazten zaizkien edo ez zaizkien erantzukizunengatik, baina ez TBko haur-programa batzuk ikusteagatik.

### **Sexu gehiegi?**

Sexu errealista ikustea oso asaldagarria izan daiteke haur eta gazteentzat, ulertzen ez duten bortxazko alderdiagatik. Sexua TBn aurkezteko modua ez da batere erreala, konpromisorik gabeko atsegin hutsaren alderdia erakusten baitu, konpromisozkoa eta mingarria baztertuz. Kasu askotan, TB da sexu-informazioarako gazteek duten iturri "bizi" bakarra, ikusten eta praktikatzeko ez dituzten gauzak ikasiz. Errealitatearen pertzepzio "partziala" har dezakete, bai sentimendulaguna bai sexu-bizitza bera gutxiestera iritsiz. TBk sexualitateaz egiten duen erabilera partzial honen adibide bat publizitatearen munduan daukagu.

Irtenbidea programazioa bahetik igarotzea da, txikitxoenen kasuan, batez ere. Nerabeekin, irtenbidea sexu-informazio hori ematea da eta horretaz beraiekin hitz egitea. TBn ikusitakoa gaiari heltzeko aitzakia gisa erabil daiteke, gainera.

### **Iragarkiek neurririk gabeko kontsumismoa bultzatzen dute eta mundu irrealak sortzen dituzte, lortu ezinezko arrakastak proposatuz? TB beldurraz baliatzen da? Sentiera irrealak edo norabide bakarrekoak irakasten ditu?**

Irtenbiderik onena bizitza gehiago bizitzea da, horretaz beraiekin hitz egitea, eta TBn ikusi eta sentitutakoa benetako bizitzarekin konparatzen laguntzea.



# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?

## Egiaren eta errealitatearen izenean informazioa manipulatzen du?

Lehen urratsa gu horretaz jabetzea da, eta konturatzea TB “ez dela errealitatea”, “errealitatearen irudi bat” baizik.

TBk erakusten duen sasierrealitatea ezin da ukitu, kristalaren bitartez suma daiteke, baina ezin gaitezke pantailaz bestaldera igaro.

Ariketa bat etxeko bideo-kamera erabiltzea izan daiteke famili bizitza kontatzeko, baina bakoitzak bere dokumental independentea egin dezala, eta gero guztien artean ikusi eta hitz egin. Ikusiko duzue zein desberdina den bakoitzaren ikuspegia. Eta gero TBn gertatzen denaz konparatu, besterik ez duzue egin behar.

## Indarkeria gehiegi?

Gai hau azkenerako utzi dut, gaur egun oso garrantzitsua dela uste baitut. Hurrengo puntuan aztertuko dut.

## NOLA JOKATU BORTXAREN AURREAN

Ez dago adostasunik hezitzaile eta ikertzaileen artean. Teoria desberdinak daude:

\* Ohitzea. Azkenerako bortxa edo indarkeria baliabide normaltzat hartzen da norberaren interesak ezartzeko eta gatazkak konpontzeko. Emoziozko sentiberatasuna galtzen da.

\* Inhibizioa. TBko indarkeriak beldurtu egiten du ikuslea, emozio eta portaera erasokorren adierazpena inhibitzen du, telebistak berak gaitzesten badu, batez ere.

\* Estimulazioa. TBko Indarkeriak imitazioa bultzatzen du, portaera eraso-

korrak edo horien ikaskuntza bultzatzen du. TBko indarkeriak horretara animatzen du ikuslea, emozio eta portaera erasokorren adierazpena indartzen du, batez ere TBk berak ez badu hori gaitzesten eta bai aldarrikatzen.

\* Katarsia. TBko indarkeriak deskargatu egiten ditu tentsioak eta agresibitatea, ihesbide bat eskainiz.

\* Gatazken konponbidea. TBko indarkeriak gatazkak konpontzeko ereduak eskaintzen ditu, askotan horiek bide balioitsu eta arrazoizko bakartzat aurkeztuz.

Batzuentzat TB da gure gizartean dagoen indarkeriaren erruduna eta kausa-efektu erlazioa bilatzen dute. Beste batzuentzat, gizartean ikasitako indarkeriari forma emateko modua irakasten du TBk eta gizarte-ingurune etsigarri, lehiakor eta erasokorrek bere gain hartu beharko lituzkeen erantzukizunak saihesteko “errudun” bihurtzen da.

Ziur aski, inork ez du arrazoa osorik. Baliteke errealitatea hobeto azaltzea argazki-errebelatuaren adibideak: TBk errebelatzailearen zeregina izango luke, honek era batera edo bestera ezkutuan dauden gauzak agertarazten edo indartzen ditu, eta, era batera edo bestera erabili, asko alda ditzake bere efektuak.

Edonola ere, jokabide hauek proposatzen dizkizuet:

**1. Indarkeriaren presentzia.** TBn indarkeri dosi batek ipuinetako indarkeriaren antzeko eginkizuna bete dezake: zeharbidez eta era naturalean ikastea bizitzan ere badela gaiztakeria, samina, atsekabea, heriotza...

**2. Indarkeriaren dosifikazioa.** Kontuz kopuruarekin. Gauza bat da haurrak intuitiboki ikastea bizitzan BADELA bortizkeria eta beste gauza bat bizitza bera bortitza DELA ikastea. Gauza bat da bortizkeria agertzea eta bestea programa bera bortitza izatea.

**3. Indarkeriaren esplizitazioa.** Kalitate-kontua da. Indarkeriaren esplizitazio zuzeneko eta gordina beti da kaltegarria. Ez du eragin bera hitzezko indarkeriak edo ikusten denak. Honela, ipuin tradiziozkoetan otsoak amonaxoa jaten duela esaten da, baina inoiz ez da irudi bidez esplizitatzen.



EPSTEIN Jean: *L'explorateur nu*. Editions universitaires. 1982.

**4. Indarkeriaren zentzua.** Hau ere kalitate-kontua da. Erabakigarria da bortxazko egintzari ematen zaion zentzua, ikusle den haurrak emango dion esanahia, egingo duen balorazioa. Ez da gauza bera “benetako” indarkeria edo “fikziozkoa”. Ez dira gauza bera hezur-haragizko gizakiak edo marrazki bizidunetakoak. Honela, telesaio batzuetan aktore bortitzarekiko identifikazioa erabiltzen da haren portaera legitimatzeke, indarkeria justifikatzen da bidezko kausen zerbitzura ipiniz, edo are gehiago, bidezkotasun/bidegabekeri irizpidea aldatu ere egiten da pertsonaia bortitza nor den kontuan izanda.

**5. Frustrazioa indarkeri sortzaile.** Frustrazioak portaera erasokorrek eragiten ditu. Norberaren bizitza film, publizitate edo albiste-saioetako zorientasun erraz, nabarmentze, luxu eta aberastasunen promesarekin parekatzeak frustrazioa sortzen du. Frustrazio honek beronek ez ote ditu haur, gazte eta helduen portaera erasokorrek gehiago eragiten telesaioetako indarkeriak berak baino?

Orain arte esandakoa laburtzeko famili jarrera batzuk aipatuko ditugu, zuen etxean praktikan jar ditzazuen:

## FAMILI JARRERAK

### Onak

- Telebista elkarrekin ikustea eta programez hitz egitea, seme-alabek beren irizpideak izan ditzaten, eta telesaioen eduki, informazio eta kalitateaz iritzi kritikoak ematea.
- Haurrak txikiak direnean gurasoek programak hautatzea, eta handitzen direnean elkarrekin egitea.
- Ez piztea telebista ohitura edo errutinaz.
- Ahalik eta gehien dosifikatzea telebista ikusteko denbora.
- Ez uztea telebistaren mende beste ekintza batzuk egiteko aukera.
- Telebista desmitifikatzea, erabiltzen dituen trukajeak eta inpresionatzeko erak azaldu eta komentatuz.
- Telebista ez erabiltzea zigor edo sari gisa.

## FAMILI JARRERAK

### Hobetu beharrekoak

- Telebista jatorduetan ikustea (familien %50ek du ohitura hau). Honek famili komunikaziorako egunean zehar dau den aukera urriak deusezten ditu.
- Telebista gazteak kontrolatuta edukitzeko erabiltzea.
- Ez jakitea zenbat denbora ikusten duten seme-alabek telebista.

- Ez jakitea zer-nolako programak ikusten dituzten seme-alabek.

- Telebista zigor edo sari gisa erabiltzea.

- Seme-alabei goizaldera arte telebista ikusten uztea asteburu eta jaiegunetan.

**Gurasoek jarrera berriak bultzatu behar dituzte eredu izanez.**

Eta bukatzeko, Graciela Peyrú-ren “*Papa, puedo ver la tele?*” liburutik **telebista-menu bat aterara dizuegu 6 hilabetetik 5 urte arteko haurrentzat:**

### PROGRAMAK AUKERATZEKO EREDUAK

*Zu eta zure seme-alabak nekatu egin zarete sortzen eta jolasten, eta tartetxo batez bestek egindako programak ikustea erabaki duzue. Egoki eta arazorik gabe disfrutatzeke, adin bakoitzaren eskakizun eta lehentasun bereziak jakitea komeni zaizu agian. Ondoren, haurtzaroko etapa bakoitzean, telebistaren erabileran dauden desberdintasunak agertzen dira. Gai honen ikertzaile nagusiek proposaturikoa aipatzen da.*

### Sei hilabetetik bost urtera arte

1. Txikienek laguntza behar dute errealitatea eta fantasia bereizteko.
2. Linealak ez diren narrazioak, etenaldi asko eta zehar-pertsonaia ugarikoak, ulertezinak gertatzen zaizkie.
3. Kontaketan osagai nagusien eta bigarren mailakoen artean bereizteko gaitasunik ez dute. Beraientzat balio bera du guztiak.
4. Oraindik ezin dituzte ezarri kausa eta efektuaren arte-ko erlazioak; beraz, nahastu egiten dira istorioaren kontaketa atzeraka egiten denean, edota ikusten ari diren sekuentzian beste istorio batzuk tartean sartzen direnean.

*Zio hauek guztiak kontuan izanda, hona hemen bizitzako aldi honetarako gomendatzen den **telebista-menua**:*

1. Istorioak argi eta garbi kontatzen dituzten programak, gehiegizko dotorezia formalik gabe. Ipuin magikoak (aldaera ugari dituzte gaur egun), antzinako mitoak eta abenturak (esploraziozkoak, ez indarkeriazkoak) “jaki” osasungarriak dira haur haurrentzat.
2. Marrazki bizidun nahiko errealistak, haur-taldetxoek elkarrekin jolas egin eta balentriak egiten dituzten horietako -

# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?

ak. Honelakoetan gatazkak, konponbideak eta lankidetzagiroa agertzen da taldeki-deen artean: elkarri laguntzen diote aurrera egiteko eta ahulenganako begirune berezia azaltzen dute.

3. Adin honetako haurrek oso atsegin dituzte gizakiok bezala jokatzeko duten animaliak protagonistak dituzten telesaiak. Horregatik izan zuten hain arrakasta handia *Lassie* eta *Flipper*-en telesailak. Haurtxoak maitasun-sentimendua garrantzitsuak zertzen hasten dira, eta beste batzuk zaintzeko gaitasuna ere bai. Errazagoa da telebistako maskota xarmangarriekin praktikatzeko.

4. Haurtxo hauek bereziki izutzen dira gorputz-zatikatzeko irudiekin. Pertsonak edo animaliak zatikatuta erakusten dituzten marrazki bizidunak edo aktoreekin egindako eszenek ikaragietan dituzte. Baita albiste-saioretan agertzen diren zauritu eta gorputz ebakiek ere.

5. Bizitzako etapa honetarako programetan aski da eragozpen eta ezbehar txikiak sartzea, interesa sortzeko drama eta tensio pixka bat ere behar baita, baina haurrak izutu eta etsiarazi gabe.

6. Norbait zaurituta edo arriskuan baldin badago, agian garrantzitsuagoa izango da elkartasun eta erreskate-iruditara bideratzea kamera, "sarraskiaren" xehetasun bortiitza ematera zuzendu ordez.

7. "Telebistako familien" bizitzaz osaturiko telesailak nagusien laguntza behar dute adin honetan. Pantailan ikusten denaren eta norberaren familiaren arteko antzekotasun eta desberdintasunak azaldu behar dituzte helduek. Txikiak zaindu egin behar dira telesaiak batzuen gehiegizko indarriaren aurrean (baita marrazki bizidunetan ere), edota nagusi askoren zinismoaren aurrean. Babestu egin behar dira balore desegokien aurrean, ez baitira gai horiek eztabaidatzen hasteko. Adibidez, *Simpson*-tarren aita barregarri geratzen da sarri. Ekoizpen honek animazio bikaina du eta gizarte-kritika latza Ipar Ameriketako langile-klasearen bizimoduaz, baina heldu edo nagusientzat da, dudarik gabe. Hala ere, *Simpson*-tarrek onarpen-marka guztiak hausten dituzte haurren artean, beren merituengatik eta publizitatekanpaina ikaragarriagatik. Erabat antisoziala den *Bart Simpson*, ezaugarri imitagarri bakar bat ere ez duena, (honengatik izan ote da?) haur guztien heroi aukeratu dute marrazki bizidunetan. Zuk ezin badituzu *Simpson* tarren deratu, haurrekin bat egin eta zeu ere eseri ikustera. Honek



EPSTEIN Jean: *L'explorateur nu*. Editions universitaires. 1982.

aukera emango dizu Barten portaeraren xehetasun batzuk eztabaidatzeko, adibidez, herriko heroiaren estatuari burua zerraz moztzen dionean edo aita behin eta berriro gutxiesten duenean.

Aukera-aukerakoak dira dibertsio partekatuan, talde-lanean eta elkarrekiko begirunean oinarritzen diren programak, hauek gehiago liluratzen dute haurren irudimena, eta erakutsi egiten diete nola pasa litekeen ongi, lankidetzan jardun eta eginkizunetan eraginkorrak izan.

Artikulu hau idazterakoan, hainbat urtetan erabili ditudan materialeak eta esperientziak izan ditut kontutan. Hala ere, gai honen inguruan sakondu nahi duenari, material hauek proposatzen dizkiot:

AGUADED, José Ignacio (1999): *Convivir con la TV*. Barcelona: Paidós

FERRES, Joan (1994): *TV y educación*. Barcelona: Paidós.

MASTERMAN, Len (1997): *La enseñanza de los medios de comunicación*. Madrid: Ediciones de la Torre.

PEYRÚ, Graciela (1993): *Papá, ¿puedo ver la tele?*. Buenos Aires: Paidós.

Informazio gehiago aurkitu dezakezu gai honen inguruan sortu berri dudan webgunean:

<http://members.es.tripod.de/altzo/>

# Gai monografikoa

**D**uela urte batzuk Angelo Cacciola italiarra ezagutu nuen Arrasaten. Deba Garaiko Mankomunitatearekin lankidetzan, enpresa bat sortzen ari zen, Internet-en erabilera eta ezaguera zabaltzeko eskualdean. Angelok Ekonomi Teorian doktore-titulua du, Suitzako Fribourg-eko Unibertsitateak emana. Bere interes-arloak hezkuntza eta enpresa dira. Haren web orrialdeetan ekonomiari nahiz hezkuntzari buruzko argibideak aurkituko ditugu.

Internet-mundua Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan sartzeko kezka horretatik hainbat ideia eta proposamen sortu dira praktikan zertzeko. Esperientzietako bat, haren ideiak umotzeko oinarri izan zena, Oñatin zertu zen, 6 eta 10 urte bitarteko hurrekin (batzuk gorputz edo adimen-urritasunak zituztenak). Angelo “txantxikuz” jantzi zen (badakizue honela deitzen zaiela oñatiarrei), eta ikastetxera sartu zen. “Txantxiku” hura “atzerritarra” zen, ez zuen Oñati ezagutzen, ezta hizkuntza ere eta haurrek web gune bat sortu behar zuten herriaren berri emateko. Oso esperientzia polita izan zen. Antzeko beste esperientzia batzuekin, Angelok bere proiektua umotu zuen eta orain Italian dago, ondoren azalduko digun eredu hango herri-eskoletan ezartzen, Italiako Hezkuntza-Erakundeek eskatuta.

Azken hilabeteotan Angelo Cacciola bere “Eskola Birtuala” proiektu berriaren koordinatzaile nazionala da, eta bere helburua, eritetxean dauden edo terapia bizien mende dauden haurrak urrutitik eskolarizatzea da. Proiektu horrek, jada praktikan zertzen ari direna, CNR-Iker Zentro Nazionalaren laguntza du, baita Osasun Sistema Nazionalaren, Haur Minbiziaren Aurkako Italiako Elkarteen, interesa duten eskolen eta erakunde pribatu askorena ere. “Eskola Birtualaren” garapena Interneteko helbide honetan jarrai daiteke: <http://www.elkarkom.com/educa/prog.htm>.

Argibide gehiago Angeloren web orrialdeetan ere aurkituko duzue, helbide honetan: <http://www.elkarkom.com/ipuintzen/>.

Eta hona hemen haren posta elektronikoaren helbidea: [angelo@elkarkom.com](mailto:angelo@elkarkom.com)

**Mikel Usabiaga**



Argazkia: Angelo Cacciola

# Ipuintzen

**Doct. Angelo Cacciola Donati**

Universidad de Parma (Italia)

Universidad de Fribourg (Suiza)

Director Comm&Edu (Communication and Education)

## Ipuintzen proiektu didaktikoa fantasiatik etorkizunerantz

...aktikoa, nik Suitzako  
...doktoressa bukatu eta  
...du konplexuaren” teo-  
...baita Blas Larak pro-  
...ako aurkikuntza jakin-

...unikazioko teknologia  
...katzeko aukera izan  
...garrantzitsuak sartu

### PRINTZIPIO GIDARIAK:

1. Ikaskuntza prozesu aktiboa da, eta gizakiak munduaz duen esperientzian oinarrituta eraikitzen du ezaguera.
2. Hezkuntza-prozesuan ezinbestekoa da ikasteko motibazioa zabaldu eta sustatzea. Testuinguru honetan ordenagailua nolabaiteko “makina unibertsala” izango da, bere bidez zenbait proiektu garatzeko: matematiketatik zientzietaraino, arte-tik musikaraino.
3. Gazteek nolabaiteko trebakuntza teknologikoa izan dezaten, beharrezkoa da pixkanaka “komunitate digitalean” murgiltzea, honela elkarrekintzan jardungo dute, ez soilik baliabide teknikoekin, baita gainerakoekin ere, ikasi behar dutelarik elkarrekin aztertzen, esperimendatzen eta adierazten.
4. Tresna berri hauek aukera ematen diete haurrei ikasten jarraitzeko zuzeneko azterketaren eta esperimendazioaren bidez.
5. Komunikazio digitalari esker, planetako bazter guztie-



Argazkia: Angelo Cacciola



tako irudiak eta soinuak eskura ditzakete haurrek. Esperientzia honek murriztu egiten du nazio-mugen eragina; honela, geografia, kultura, hizkuntza eta belaunaldiek jartzen dituzten oztopoen gainetik, adierazten ikasten dute haurrek.

6. Izugarriko garrantzia du errealitatera kulturantzeko hurbiltzea egiteak, norberarenaz bestelako kultur tradizioak partekatuz eta ikasiz.

7. Komunikazioko teknologia berriek haurren mesedera izan behar dute munduarekiko zuzeneko adierazpidean, ipuin, diseinu, musika eta beste komunikazio-era batzuen bidez. Etengabe beren ahotsa bila dezaten...

## **HEIBURUA:**

Telekomunikazioko teknologia berriak era partekatuan eta aktiboan sartzea 8-9 urteko haurren artean.

## **METODOLOGIA EA DIDAKTIKA:**

Telekomunikazioen teknologiek unibertso konplexu eta kaotikoa uzten dute agerian, non azken bi mendeotan geureganatu ditugun pentsamendu razionalaren arauak zaharkituak eta eraginkortasunik gabeak diren. Testuinguru berri honetan intuizioa eta fantasia baloratzen dira berriro, urrutiko kultura eta pentsaerak ulertzeko gaitasunaren funtsezko osagai gisa. Hortik dator hezkuntzan humanitateak eta jarduera sortzaileak bultzatzeko premia.

Aldi berean, kontuan izan behar dira telekomunikaziorako baliabide berri hauen aurrean jarrera hutsal eta pasiboak dituen arriskuak, hau da, beroriek eskaintzen diguten informazioaren kontrola galtzea eta horrek berekin dakarren alienazio eta manipulazio-era berria.

Telekomunikazioetarako teknologia berri hauek sartzeak dakarren beste arazo bat gero eta kultur uniformizazio handiagoarena da, eta azkenean nazio-berezitasunak galtzeko arriskua.


IPUINTZEN proiektuak kezka horiek kontuan hartzen ditu, aipaturiko arriskuei aurre egiten saiatuz, eta hezkuntzarloan "baliabideaz jabetzeko" ezohiko bide bat erakutsiz.

Didaktika-mota berri honek sarrera gisako bat du, non haurra bere inguruneko inkontziente kolektiboan murgiltzen den, mito eta kondairetan agertzen zaigun bezala. Girotze honen bidez, sormena bultzatu eta aldi ludikoa hasiko da: haurrak espontaneoki mundu fantastiko horren sinbolismoa luzatu eta integratuko du. Prozesu honen bukaeran bakarrik egingo da baliabide telematikoaren aurkezpena eta, geroago, horretaz aktiboki jabetuko dira, haurrek ipuin baten multimediazko transposizioa interneten eginez.

## **PROIEKTAREN DESKRIBAPENA:**

8-9 urteko 20-30 haurrekin, euskal mitologiari buruzko eta toki-tradizioetan oinarrituriko ipuin orijinal baten sorkuntza elkarrenergilea.

# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?



Argazkia: Angelo Cacciola



Argazkia: Angelo Cacciola

Ipuin horren multimediazko integrazioa diseinu, musika eta animazioarekin (izan daitezke orijinalak edo ez).

Ipuina WWW bihurtzea, beharrezko web orrialdeak sortu eta interneten ezarritu.

Ipuina formatu digitalean (CD) edo/eta inprimatuta argitaratzea.

## ZABALKUNDEA:

Euskal Herri osoko (iparralde eta hegoaldeko) lehen hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan.

## SARTZEN DIREN IKAS/IRAKASGAIAK:

- ✓ Historia
- ✓ Lan-taldea
- ✓ Diseinua
- ✓ Literatura
- ✓ Musika
- ✓ Etika
- ✓ Hizkuntza
- ✓ Teknologia

## ONURAK:

- ✓ Ikastetxeak etorkizunean izan dezakeen web gunerako oinarria prestatzea.
- ✓ Irakasleak teknologia berrietan sartzen hastea.
- ✓ Euskal mitologia eta tradizioak berpiztea.
- ✓ Euskarazko edukiak sortzea.

## GARAPEN-ALDIAK:

### PRESTAKUNTZA

- ✓ multimediazko baliabideak
- ✓ tokian tokiko informazioa eta dokumentazioa
- ✓ pertsonaia mitologikoak aukeratzea
- ✓ narrazio-bilbea sortzea

### SARRERA

- ✓ aurkezpena
- ✓ kontakizun mitologikoa
- ✓ girotzea
- ✓ partehartzea (jolasak, antzerkia)

### SORKUNTZA:

- ✓ osagaiak eta pertsonaiak bereiztea
- ✓ bilbe bat prestatzea
- ✓ aurkezpena
- ✓ feed-back
- ✓ ipuina

### PRESTAKUNTZA:

- ✓ antolaketa
- ✓ WWW materiala aukeratzea (irudiak, musikak eta animazioak)
- ✓ materialaren maneiua
- ✓ jatorrizko diseinuak prestatzea

### WWW:

- ✓ web orrialdeak egitea
- ✓ aurkezpena
- ✓ feed-back
- ✓ interneten ipintzea

### ARGITALPENA:

- ✓ liburua diseinuekin
- ✓ CD

## ANTOLAKETA:

### GIZA BALIABIDEAK:

- ✓ 2 sustatzaile

### MATERIALA:

- ✓ 3 PC
- ✓ Scanner 1
- ✓ Zip unitate 1
- ✓ Software
- ✓ Irudi, soinu eta animazioen stocka
- ✓ Pantaila-partekatzaile 1

## IRAUPENA: aste bat

# Ikasfer matik

**G**aur egunean ordenadoreak gure eguneroko bizitza errazteko erabiltzen ditugu. Etengabe sortzen ari garen gizarte espezializatu berria informatika tresnetan oinarritua dago. Horrela dela eta, Irakaskuntzan ere ordenadorea tresna gisa erabiltzeko beharra sortu zaigu. Haur Hezkuntzara ere behar hau heldu zaigu eta, horri erantzunez, ordenadoreak erabiltzeko era bat garatu dut Arabako Ikastolen Federakundearekin batera.

Orain dela bi urte, garaiko errealitate informatikoa eskoletan aztertzen hasi nintzen eta ondoko bi ondorioetara heldu nintzen: 1.- ordenadoreak hezkuntzan, bizitza arruntean bezala erabili beharko liratekeela eta 2.- Haur Hezkuntzan aplikazio informatiko egokiak existitu arren, ordenadoreak oso leku gutxitan erabiltzen zirela (HHn) eta tresna erabiltzen zen lekuetan haurra ez zela bat ere autonomoa makinaren aurrean.

Beste alde batetik, informatika arinegi garatzen den zientzia kontsideratzen badugu, berehala konturatzen gara momentu batean aplikapen informatiko baten erabilpena erakusteak hurrengo urteetan garatuko den beste aplikazio baten ezagupena ez duela ziurtatzen. Orduan, zer erakutsi?

## Prozedura informatikoa

Prozedura informatikoa berdina izan da beti; hau da: ordenadorea piztu, sistema eragilea eta erabili nahi den aplikapen informatikoa kargatu, erabili, emaitzak gauzatu, aplikapenetik atera, eta azkenik, ordenadorea itzali. Ordenadore berrietan zein zaharretan prozedura bera erabiltzen denez, tresna zaharrekin ere informatikaren oinarriak lan daitezke era moderno batez.

Aurreko guztia kontutan izanik, bi ardatzetan oinarrituko nuke edozein planteamendu informatika hezkuntzan erabiltzeko:

- Medio informatikoei dagokionez, haurrak zenbait baliabide fisiko eta tekniko ezagutu behar ditu ordenadore baten aurrean autonomiaz aritu ahal izateko.
- Ordenadorea tresna gisa hartuta, lan daitezkeen edukinak, prozedurak, trebetasunak eta abarreko garapen motrizak eta intelektualak.

Orain arte haurrak jasotzen duen emaitza aipatu besterik ez dut egin. Baina horren garrantziaz zerbait esan beharko da.

Haurrak ordenadorearen bitartez berehalako emaitzaren bat jaso behar du. Gaur egunean hezkuntzarako diseinaturik dauden aplikazio informatiko gehienak gelan lantzen diren zenbait edukin indartzaile besterik ez baitira, eta haurrak ezin du ikusi ez eta ikutu ere ez berak sortutako produkzioa.

Haurra sortzailea izan eta sentitu behar da. Emaitzak eduki behar dituen ezaugarriak hauek dira: haurrak sortutako zerbait izan behar da, ikutu daiteken zerbait, sortutakoarekin beste zenbait ekintza antolatzeko aukera egon behar da eta emaitza berehalakoa izan behar da.

## Esperientzia bat: Informatika txokoa

Hasieratik deskribatutako guztia kontutan izanda, hona hemen nik egindako planteamendua eta izandako esperientzia.

Orain arte Arabako hiru Ikastolatan ezberdinetan (Bastida, Oion eta Audio) eraman dut aurrera. Nahiz eta bakoitzean proiektua egokitu bertako berezitasunetara, denetan jasotako haur, guraso eta irakasleren erantzuna ezinhobea izan da. Emaitzak izugarri onak izan dira.

### Ardatz nagusiak:

MEDIO INFORMATIKOEI DAGOKION ARDATZA:

#### Baliabide fisikoak.

- Teklatuaren tekla inportanteen identifikazioa. (Esc, Enter, geziak, tekla-handia, ...)
- Pantaila, CPU eta inprimagailua pizten jakin.
- Nola sartu eta nola atera diskette bat. (fisikoki)
- Zertarako den osagai bakoitza. Zer funtzio duen bakoitzak.

(Haurrek berehala ikasten dutenez sagua erabiltzen, eta erabiliko ditudan aplikazioek beharko ez dutenez, saguaren erabilpena ez da agertzen)

#### Oinarrizko funtzionamenduak

- Nahi duen aplikaziora heltzeko zer pausu eman behar diren.
- Oinarrizko Sistema eragilea.
- Zenbait aplikaziotan mugitzen jakin.
- Kanpoko dispositibo bat erabiltzen jakin (inprimagailua).

EDUKINEI DAGOKIEN ARDATZA:

Hiru aplikazio informatiko ezberdin erabili ditut: ESNA-TU Proiektua, BAGA BIGA Proiektua eta Print Master (azkenengo honetan emaitza zuzena lortzeko).



# a proiektua

Rafa Cenea  
Irakaslea

**ESNA:** Aplikazio informatiko honen bitartez irakurketa eta idazketa lantzen da. Nahiz eta aplikapenak proposatzen duen metodologia aproposena ez dela pentsatu, idazketa eta irakurketaren apendizai indartzeko oso egokia da.

**BABI:** Aplikapen informatiko honetan sei joku ezberdinen bitartez matematikaren barne logika lantzen da.

**Print Master:** (euskaraz) Txartelak, zoriontzeko postalak eta holako dokumentuen prozesatzailea da. Honetan marrazki libreria topa dezakegu eta testu prozesatzaile simple baten bidez idazteko ere ematen digu aukera.

## Sortutako Eskuliburuak:

Marrazkien bidez egindako gidak dira. Haur bakoitzari, saio bakoitzean, saio horren gida bat ematen zaio, non azaltzen zaion zer egin behar duen momentu bakoitzean. Gida hauek prozesu informatikoaren pausuak zehazten dituzte: piztu pantaila, piztu ordenadorea, sartu diska, idatzi "...", sakatu enter, eta abar.


Aplikapen informatiko bakoitzerako ikur erraz bat asmatu dut haurrak beti zer lantzen ari den jakin dezan (hizkuntza, matematika edo plastika). Egin beharreko ekintza ere azaltzen zaie beste ikurren bitartez: ikutu, ziurtatu, sakatu tekla, ...

Koloreek ere garrantzia dute gideetan. "Piztu" edo "sartu" adierazi nahi denean, berdez azaltzen da eta "itzali" edo "atera" adierazi nahi denean, gorritz.

Noizbehinka aplikazio informatikoak berak azaltzen dio haurrari egin beharrekoa, orduan, gidak indartu egiten dio pantailan azaldutakoari.

Zer esanik ez, pausu bakoitzak gidaren orrialde bat duela, haurrak okerrik egin ez dezaten.


Orokorrean bitan sailka daitezke gidaren orrialde motak: prozedura informatikoei dagozkienak (haurrak aurrean duen ordenadorearen irudia ikusten du gidan) eta aplikazio informatiko konkretu baten barne aginte eta funtzionamenduak direnean pantailak erakusten duena gidan marraztuta dagoen pantailan ikusten da.



Gida nolakoa den hiru adibide:



1.a "Babi" izeneko aplikazioa. Pausu hau gida guztietan agertzen da. Prozedura informatikoaren pausua. Esanahia: "piztu CPU"



2.a "Esna" izeneko aplikazioa. Pausu hau gida gehienetan agertzen da. Prozedura informatikoaren pausua. Esanahia: Idatzi "ESNA1" hizkiak eta sakatu "Enter" tekla.



3.a "Print Master" izeneko. Pausu honek pantailan agertzen den agintea indartzen du. Aplikazio informatiko konkretuaren pausu bat da.

Esanahia: "Aukeratu nahi duzun marrazkia geziak erabiliz eta sakatu "Enter" tekla aurrera jarraitzeko".

## Hizkuntzak ikasteko berrak “Chat” edo bidekonferentziak

**Josu Sierra Orrantia**

josusierra@euskalnet.net

<http://www.euskalnet.net/marisari>

**P**lazaratzen du Salaberry-k (Salaberry, 1996: 23) oso galdera interesgarri bat ordenadore bitarteko komunikazioari buruz. Beste autore batzuk aipatuz, gogoratzen du elkarrizketa normaletan ematen den “*esahariaren negoziazioa*” dela gakoa bigarren/hirugarren hizkuntza baten ikasketa prozesuan. Bestalde, talde-lana eta pare-lana oinarrikoak dira ikaslearen praktika areagotzeko gela barruan. Talde-lanak informazioaren trukaketa sortzen du ikaslea interakzioan inplikaturik. Interakzio-mota hau ezinbestekoa da xede-hizkuntza eskuratu ahal izateko eta argi dago CMC edo Computer Mediated Communication deritzanak hizkuntza-interakzioa sortzen ikaragarri laguntzen duela. Baina, eta hemen dago galdera, ordenadoreak sortutako ingurune hau egokia al da aipatutako interakzioa esandako baldintza pedagogikoetan sortzeko?

Ordenadoreak, dio Salaberry-k, lan bat egiteko efikazia gehitzen du. CMC-ak oso kalitate/prezio erlazio ona duen tresna bat eskaintzen dio hizkuntza-irakasleari, ikasleen arteko interakzio dezberdinak sortzeko.

### BALDINTZA IDEALAK BIGARREN HIZKUNTZA BATEN IKASKUNTZARAKO

Chapelle-k dio (Chapelle, 1998), Long eta Pica-ren lanak aipatuz, zazpi hipotesi ezarri daitezkeela bigarren hizkuntza bat idealki ikasteko. Zazpi horietatik bakar batzuk azpimarratuko ditugu:

Ikasleek xede-hizkuntzan produzitzeko aukerak izan behar dituzte.

Ikasleek beraien output-ean eginiko errore berri izan behar dute.

Ikasleek beraien output-ak zuzendu behar dituzte.

Ikasleak inplikatu behar dira xede-hizkuntzan eginiko interakzioan eta interakzio hau esanahiaren negoziazioaren bidez aldatzeko modukoa izan behar da.

Ikasleak inplikatu behar dira bigarren hizkuntzako lanetan eta lan hauen helburua interakzio on baterako aukerak ugaltzea izan behar da.

Hipotesi ideal horiek eskaini ahal izateko tresna berri batzuk ere baditugu egun: multimedia CALL (Computer Assisted Language Learning) izeneko softwarea eta, batez ere, Internet, mundu mailako sare telematikoa.

Kontuan hartu behar dugu, nolatan ere, Salaberryk dioenez (Salaberry, 1996), “*2Hren ikaskuntzarako erabiltzen diren tresna teknologikoen efektu pedagogiko potentziala bere aplikazioa gidatzen duen hurbilketa metodologiko edo teorikoaren menpean dago.*” Beste era batera esanda, tresna edo teknologia bera ez da berez zoragarria hizkuntzaren ikaskuntzarako. Bere balioa, irakasleak tresna hori erabiltzeko jarraitzen duen metodologia edo ikuspegi pedagogikoaren arabera egongo da.

Hala ere, CMC tresnek “*iraultza*” bat suposatzen dezakete, ez teknologiatik beragatik baizik eta ikaslearengan zentratutako ikas-eredu bat bultzatzen dutelako”.

### INTERNET ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

Aurreko batean ikusten genuen “*Nola landu euskara internet-en bidez*” (Sierra, 1997) artikuluan, sarearen ahalmena hizkuntzen irakaskuntzan.

Bertan, Muehleisen aipatzen genuen eta bere arrazoiak Internet hizkuntza klasean erabiltzeko (Muehleisen, 1997):

Ordenagailuak erabiltzea ikaragarri motibatzailea da hizkuntza ikasterakoan.

Internet-ek ikasten ari garen hizkuntza nazioarteko kontestu batean jartzen du.

Internet-eko proiektuak interaktiboak dira.

Internet erabiltzeko erraztasunak gero eta handiagoak dira.

# Interneteko esperientziak konferentziaren bidez

Internet-ek, gainera, irakaskuntza ikaslearengan zentratzeko beste aukera bat ematen digu, benetako hizkuntza-esperientziak bizitzeko bide berri bat, kezka hau duen irakaslearen eskuetan.

Baina Warschauer-ek (Warschauer, 1997) honako hau gomen datzen die irakasleei Internet erabili ezkerok:

**Kontuz pentsatu helburuak:** gutxi irabazten da Internet bidezko ekintza solteak klaseari gehituz. Zein da helburua? Hizkuntz-kontestu bat sortzea ikasleentzat? Idazmena lantzea?...

**Integrazioan pentsatu:** pentsatu ikasleen konexioak nola integratu klaseetan.

**Ez eman garrantzia gutxiegia konplexutasunari:** Internet erabiltzeak baditu bere zailtasunak. Hobe da hasieran anbizio gehiegi ez izatea, gauza txikiekin hasia.

**Beharrezkoa den laguntza teknikoarekin kontaktu:** ikasleek, binaka edo taldeka ari direlarik, beharrezkoa duten laguntza teknikoa izan dezatela.

**Inplikatu ikasleak erabakietan:** ikasleen interesak kontuan hartzea bereziki inportantea da internet bidezko irakaskuntzan eta horrek ez du suposatzen irakaslearen papera pasiboa denik.

## SAREAN EGINIKO TOPAKETAK

Bada, izan ere, chat eta bideokonferentziarako hainbat software eta tresna. Batzuk dohainik. Interesgarri bat Cornell University-k sortutako **CU-SEEME** da, adibidez. Interneteko helbide honetan debalde deskargatu dezakezue Beta bat:



<http://cu-seeme.cornell.edu/v32x/v32xfront.html>

Software hori erabiliz erregistratuta dauden hainbat ikas-tetxerekin ere konektatu ahal izango duzue.

Baina oraingo honetan, **Internet** eta "**Microsoft Net Meeting**" programa erabiliko ditugu hizkuntza lantzeko asmoz (2. zein 3. Hizkuntza).

Programa hau Microsoft Internet Explorer-ekin dator dohainik eta informatikako edozein aldizkarekin banatzen da (CD-ROMean)

*Net Meeting*-ek, dakizuen bezala, "chat", bideokonferentzia eta "kolaborazioa" permititzen ditu. Chat-a, idatzizko komunikazioa da eta sortutako testu guztiak gorde daitezke.

# Gai monografikoa

Bideokonferentzia (web kamara txiki bat behar da) bideoz eta audioz egiten da eta ahozko hizkuntza lantzeko balio dezake. Audioak ondo funtzionatzen ez badu, "chat" eta bideoa erabil daitezke. Kolaborazioa, interlokutoreen arteko lana da. Biek erabil dezakete programaren bat (Excel, Word...) eta testu zein data-orri bat sortu.

## CHAT ETA BIDEOKONFERENTZIAREN ABANTAILA BATZUK HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN

Hizkuntza bat ikasteko biderik aproposena jatorrizko hiztunetik interakzioa da, benetako interakzioa, hizkuntza erreala egoera komunikatibo errealean erabiliz.

Interakzioa, dio Counihan-ek, (Counihan, 1998) ez da galdera bati itxarotea eta ez da galdera honi erantzun labur bat ematea. Interakzioak suposatzen du emozioa, sormena, adostasuna, desadostasuna, itxarotea hitz bat etorri arte, keinuak, zeinuak, hasperena, ...

Zoritxarrez, eskola-eremuetan ez dira asko izaten horretarako aukerak. Alde batetik, agian ez ditugu jatorrizko hiztun horiek edo eta ez dakigu oso ondo nola antolatu jatorrizko hiztunetik interakzioa eskola-programa barruan.

Internet-ek, ordea, interakzio errealerako aukera berriak ematen dizkigu (Hanson-Smith, 1997). Teorian, munduko edozein txokotako hiztunekin hitz egin edo lan egin dezakegu planeta osoan zehar zabaltzen den sare honi esker (Leloup, Ponterio: 1997). Horrez gain, ikasleentzako oso motibagarria da ariketa mota hau eta benetako harreman pertsonalak ahalbideratzen ditu, "birtual" samarrak badira ere, ikasleen interesa areagotuz.

## LEHENIK ETA BEHIN, PRESTAKUNTZA

Dena den, ordenadoreko programak ireki aurretik oso ondo prestatu behar da saio bakoitza, hezkuntz-etekinik atera nahi badiogu behintzat.

Honako hau prestatu beharko dugu:

**Ikasleen taldekatzea eta txandak:** hobe da talde txikietan funtzionatzea eta txanda batzuk ezartzea denek parte har dezaten. Saioaren denbora mugatzea ere komeni da.

Interlokutorearekin tokia (ILS direktorioa, non gelditzen garen), ordua eta erabiliko duen izena eta bestelako xehetasunak ezarri: Net Meeting-ek direktorio asko ditu eta nahi duzunean sartu zaitezke. Gehienak oso beterik daude eta hobe da "Business" edo horrelakoren bat hartzea, errazago aurkituko zarete. Zuk definitu behar duzu zein eratako harremanak nahi dituzun: pertsonalak, lanekoak,...

Horrelakoetan esperientzia luzeagoa dutenek, honako hau aholkatzen dute (Zwier, 1998): **ikasleek erabiliko duten GAIA prestatzea** konektatu aurretik, bestela erori daitezke betiko "kaixo, zer moduz?" eta horrelakoetan, sekula "interese-

seko" ezer ere esan gabe.

(<http://microsoft.com/education/k12/articles/in5mar98.asp>)

Hoberena zera da: gaia prestatzea, galdera eta erantzunak idaztea eta, konektatu aurretik, gaiari buruzko informazio nahikoa jasotzea. Honek esan nahi du ekintza honek, hizkuntz helburuez aparte, edukiak lantzeko ere balio dezakeela.

## ADIBIDE BAT

Demagun "gure herria" gaia prestatzen dugula, (gure interlokutoreekin adostu ondoren, jakina) hori baita urrutiko norbaitek hitz egiterakoan azaltzen den topikoetako bat (osatu daiteke gai hau beste batzuekin: ikasleen datu pertsonak, ikastetxearen aurkezpena...).

Lehenik, herriari buruzko honako azpigaiak markatuko ditugu:

- Kokapen geografikoa (lurraldea), ibaiak, mendiak, bideak...
- Historiari buruzko zertzelada batzuk.
- Ekonomia, biztanleria, itxura fisikoa, hizkuntzak...
- Klima, eguraldia, tenperaturak,...
- Gure ikastetxeari buruzko datuak...
- Hizketan ari direnen datuak eta bestelako xehetasunak...

Behin gai hau talde bakoitzean prestatu ondoren, gure interlokutorea izango diren ikastetxekoekin kontaktatuko dugu.

Adibidez, [ils4.microsoft.com](http://ils4.microsoft.com) direktorioan gelditu gara 11etan.

Beraien izena ezagutzen dugunez, direktorioan aurkitu eta deitu egiten diegu.

"Elkarriketa" botoia sakatu eta "chat"-ean hasten gara, hitz eginez zein idatziz lan egin dezakegu. Bideo *webcam* baldin badute ikusi ere egingo ditugu.

Konektaturik gauden bitartean edozein gauza bidali ahal izango diegu interlokutoreei korreo elektronikoen bidez (korreoa bidali botoiaz).

## HIZKUNTZA LANTZEKO OHARRAK

Hizkuntza landu nahi badugu, **prestatutzatik** bertatik hasi behar gara hizkuntz-etekina ateratzen. Ikasleek gaia prestatzen dutenean Word dokumentu batean idatziko dute eta dokumentu horiek inprimatu eta hizkuntza aldetik aztertu ditzakegu.

# Teknologia berriak, informatzeko eta komunikatzeko?

Dokumentu horiek, gure interlokutoreei bidali diezazkiegu, argazki, irudi eta guzti nahi izan ezker, informazioaren elkar trukaketa aberatsago bat izateko (gure herria, taldekideak, ikastetxea...).

Chat-aren eraginez produzitu den testua ere gorde eta inprimatuko dugu hizkuntza aldetik aztertzeko.

Talde guztiek amaitu dutenean, talde lanean jarri ditzakegu esperientziari buruzko azalpen bat presta dezaten. Ondoren, talde bakoitzak bere ahozko zein idatzizko "txostena" azalduko du.

Informe horiek komentatzerakoan besteen hizkuntza edo hizkerari buruzko datuak ere azaldu daitezke: zer nolako euskaraz zuten, doinua, akatsak, ...

Beti ikasleak-ikasleekin egin ordez, bada beste *chat* edo bideokonferentzia interesgarri bat: heldu batekiko egiten dena. Hango irakasle, edo pertsona ezagunik: bertsolaria, sukaldaria edo idazle zein mendizalea, edozein. Arazoa, ariketa ondo prestatzea da eta etekinik handiena ateratzea.

## IKASLEEN EKOIZPENA ETA HUTSEGITEEN ZUZENKETA

Desberdintzen baldin badugu, Johnson-ek dioen bezala, (Johnson, 1997) **HUTSEGITEA** eta **ERROREA**, lehena "gaitasuna gauzatzeko trebetasunak hutsegitea" litzateke eta bigarrena aldiz, "ezagutzak hutsegitea".

Gure ikasleek bietakoak egin ditzakete baina oso ikasle berriak ez badira edo hizkuntza asignatura gisa ematen ez badute, normalagoa izango da hutsegite gehiago egitea erroreak baino. Hau da, nola esan beharko litzatekeen ezagutzen duten arren, teorian, mintzatzerakoan huts egiten dute.

Nola kontrolatu gure ariketa honetan ekoizpenaren kalitatea eta zuzentasuna? Chat-a erabil ezker nahiko erraza

da bukatu bezain pronto testu idatzia aztertu eta zuzentzea. Konferentzia edo bideokonferentzia egin ezker zailagoa da. Nola ez, grabatu egin ditzakegu elkarrizketak (kasetean), baina gero lan gehiago izango dugu elkarrizketa guztia aztertzen.

Erroreen zuzenketarako EREDU ERREAL ZUZEN BAT behar dute eta hori ere lortu daiteke chat edo bideokonferentziaz. Hala ere, hutsegiteen zuzenketarako honako gauza hauek beharko dituzte ikasleek, Johnson-ek dioenez:

### 1. IKASLEAK HUTSEGITEAREKIN BUKATZEKO GOGOIA EDO PREMIA IZAN BEHAR DU.

Askotan ikasleak ez du zuzentasun handiago baten premiarik nabaritzen. Horrela ere bizi daiteke: "*komunera nahi*" eta komunikatzea lortzen badu, ez du besteren premiarik sentituko.

### 2. IKASLEAK PORTAERA ZUZENAREN BARNE-IRUDI BAT IZAN BEHAR DU. (BESTELA ERROREA IZANGO LITZATEKE ETA EZ HUTSEGITEA).

Noizbait entzun edo irakurri behar izan du ikasleak forma zuzena, bestela ezin du benetan izan zuzena denaren irudirik. Hutsegitearen *ostean* ere jaso dezake portaera zuzenaren irudirik, ez da beti hutsegitea egin aurretik jaso behar.

### 3. IKASLEAK AKATSA EGIN DUELA JAKIN BEHAR DU.

Ikaslea ez da automatikoki hutsegiteaz jabetzen. Agian irakasleak esatea ere ez da nahikoa izango, berak ikusi beharko du. Feedback-en bat beharko du eta feedback hori modu askotakoa izan daiteke: ondo eta gaizki dagoena batera ikustea, birformulazioa ere ondo egon daiteke, ondo dagoena ikus dezakeelako, baina irakasleak beti birformulazioaz erantzuten badu, ez du 4. baldintza beteko, berriz saiartzeko premiarik izango ez duelako.



## 4. BALDINTZA ERREALETAN BERRIZ SAIATZEKO AUKERA IZAN BEHAR DU IKASLEAK.

Bigarren aukera deritzana. Eta noiz gertatzen den aukera hori ere inportantea da. Zuzenketatik gertu, ahal dela. Garrantzitsuak dira ZUZENKETA eta BIGARREN SAIOA, baina elkarrekin. Separaturik ez dute horrenbeste efektibotasunik. (Kontuz! Honek ez du esan nahi bigarren saio bakar batekin hutsegiteak betiko konpondu direnik)

## TESTU-MOTA DESBERDINAK LANTZEA

Kontuan hartu behar da chat-ak eta konferentziak testu mota batzuk bakarrik produzitzen dituztela normalean. Gehienetan laburrak eta bat-batekoak, elkarrizketa erakoak... e.a. Gaiaren prestakuntzan beste era batekoak espero daitezke ordea. Dena den, testu luze eta konplexuak atxikitako dokumentu gisa trukatu daitezke. Adibidez: eta...hona hemen gure herriko monumentuei buruzko lantxo hau. Korreoz bidaltzen dizuegu momentu honetan (transmisioa bat-batekoa da).

Elkarrizketak, hizkuntza naturalean egiten dira eta hizkuntza erreala da benetako interlokutoreekin. Ez da ezinbestekoa beti jatorrizko hitzuneekin egitea, beti ikasi bait daiteke, baina jatorrizko hitzunikoa izango da, lehen esan dugunez, gehien bat gure ikasleek behar dutena.

## BESTE MATERIAL BATZUEN TRUKAKETA

Chat-ean ari garen bitartean beste material batzuek ere balia gaitzeko, edo balia daitezke ikasleak, kontestu zehatzago bat sortzeko. Bidali ditzakegun materialak asko dira:

Argazkiak (scanner-etik pasatu ondoren, jakina) edo irudiak (ikasleak, herrikoak, ...)

Audio-grabazioak: bertsoak, kanta... (ordenadorearen grabatzailearekin egin ezker, "wav" fitxategiak dira normalean eta asko okupatzen dute: konprimitzea komeni da)

Testu dokumentuak

Abar

Bidaltzen ditugun gauza guztiak karpeta berberera doaz. Ikus ahal izateko, joan *Herramientas-era, Transferencia de Archivos, Abrir carpeta de archivos recibidos.*

## AMAITZEKO

Aukera ederra eskaintzen die Internet-ek gure ikasleei jatorrizko interlokutoreak nonahi aurkitzeko. Irakasleak berriz, ekintza ondo antolatu beharko luke hizkuntzaren ikas-kuntzarako benetako esperientzia hau "berriketako" saio xume bat bihurtu ez dadin eta ikasleak, ondo pasatzeaz gain, seriooki lanean aritu daitezten.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

COUNIHAN G. (1998) "Teach to students to interact, not just talk". The Internet TESL Journal. Vol IV, n° 7, July 1998.

<http://www.aitech.ac.ip/~itesli/>

CHAPELLE C.A. (1998) "Multimedia call? lessons to be learned from research on instructed sla". Language Learning & Technology, Vol 2, N° 1, July 1998, pp. 22-34.

<http://polyglot.cal.msu.edu/lt/vol2num1/article/index.html>

HANSON-SMITH E. (1997) "Technology in the classroom" TESOL Professional Papers #2.

<http://www.tesol.edu/pubs/profpapers/techclass.html>

JOHNSON K. (1997) "Hutsegiteen zuzenketa" Hizpide, 40, 92-101 orr.

LELOUP J., PONTERIO R. (1997) "Internet technologies for authentic language learning experiences" ERIC Clearinghouse on language and linguistics. Digest.

<http://www.cal.org.ericcll/digest/leloup01.html>

MUEHLEISEN V. (1997) "Projects using the internet in college english classes". The Internet TESL Journal. Vol III, n° 6, June 1997

<http://www.aitech.ac.ip/~itesli/>

SALABERRY M. R. (1996) "A theoretical foundation for the development of pedagogical tasks in computer mediated communication". CALICO Journal, Vol. 14, N° 1

SIERRA J. (1997) "Nola landu euskara internet bidez" Agora, 1,20-23. orr.

WARSCHAUER M. "The internet for english teaching? guidelines for teachers". The Internet TESL Journal. Vol III, n° 10, October 1997

<http://www.aitech.ac.ip/~itesli/>

ZWIER J. (1998) "Meet on the net? adventures with microsoft netmeeting".

<http://www.Microsoft.com/education/k12/articles/intjun98.asp>

# JAKINGARRIAK

